

ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN GALDAKOZTARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO

Diagnostikoa

Galdakao, 2023



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. AZTERLANAREN IRISMENA ETA METODOLOGIA	4
3. DESGAITASUN BALORAZIOA DUTENEN DATUAK	8
3.1. EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK	8
3.2. DESGAITASUN EHUNEKOAK	11
3.3. DESGAITASUN MOTA.....	13
4. ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO INKESTAREN ANALISIA.....	17
4.1. LAGUNTZA BEHARRAK ETA DESGAITASUN MOTA.....	17
4.2. PARTAIDETZA ETA LAGUNTZA BEHARRAK.....	20
4.3. UDAL ZERBITZUEN BALORAZIOA	25
5. ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEK UDAL PARTE-HARTZEARI BURUZ DITUZTEN PERTZEPZIOAK.....	32
5.1. KIROL ESKAINTZA.....	32
5.2. KULTURA ESKAINTZA	36
5.3. LIBURUTEGIA.....	38
5.4. GIZARTE ZERBITZUAK.....	38
5.5. HERRIKO JAIK	39
5.6. HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK	41
5.7. MUSIKA ESKOLA.....	45
5.8. UDALAREN ESTRATEGIA OROKORRA, ETA GALDAKAOKO INKLUSIOAREKIKO IRITZIAK.....	46
6. ONDORIOAK.....	54
ERANSKINAK.....	59
I. eranskina. Kontzeptuen glosarioa.....	59
II. eranskina Galdetutakoen ezaugarriak.....	62
III. eranskina. Galdetegia.....	64

1. SARRERA

Txosten hau ikerketa baten emaitza da. Amesten elkarteko (degaitasuna dutenen gizarteratzea sustatzeko erakundea) lantalde teknikoak (Ane Estebarezek eta Ruth San Cristobalek osatutakoa) “*Galdakaon aniztasun funtzionala dutenek komunitatean duten parte-hartzearen azterketa*” izeneko kontratuaren esparruan egindako ikerketa izan da, eta Partaidetza eta Gardentasuneko Udal Arloak eskatu zuen, udalerrian bizi diren eta aniztasun funtzionala duten bizilagunen errealitatea zein den ezagutzeko asmoarekin.

Zehazki, ikerlanaren helburua da kuantitatiboki eta kualitatiboki ezaugarritzea Galdakaoko aniztasun funtzionalaren errealitatea, eta gaur egun erakundeak nolako erantzunak ematen dizkien aniztasun funtzionala dutenek udal zerbitzuak erabiltzeari dagokionez egiten dituzten eskaerei eta horien beharrei. Horrenbestez, nagusiki azterlan deskribatzailea da.

Txostenak atal hauek ditu:

- **Azterlanaren irismena eta metodologia:** laburki deskribatu ditugu erabilitako teknikak, eta horien irismena eta mugak.
- **Degaitasun balorazioa dutenen datuak:** Bizkaiko Foru Aldundiaren Degaitasuna Baloratzeko Atalak emandako degaitasunaren balorazio datuak analizatu ditugu.
- **Aniztasun funtzionala dutenen udal parte-hartzeari buruzko inkesta aztertzea:** inkestaren emaitzak aurkeztu ditugu.
- **Aniztasun funtzionala dutenen udal parte-hartzeari buruzko pertzepzioak:** alde batetik, udaleko langileen pertzepzioak aurkeztu ditugu, eta beste alde batetik, aniztasun funtzionala dutenenak eta horien senideenak, eta horretarako, teknika kualitatiboak aztertu ditugu.
- **Ondorioak:** txostenaren laburpena eta azken ondorioak.
- **Kontzeptuen glosarioa:** txostenean zehar erabilitako terminoen azalpena.

2. AZTERLANAREN IRISMENA ETA METODOLOGIA

Azterlanaren helburu nagusia izan da kuantitatiboki eta kualitatiboki ezaugarritzea Galdakaon aniztasun funtzionala dutenen errealitatea nolako den, eta gaur egun tokiko erakundeak nolako erantzunak ematen dizkien aniztasun funtzionala dutenek udal zerbitzuak erabiltzeari dagokionez egiten dituzten eskaerei eta horien beharrei. Helburu nagusi hori lortzeko, honako helburu espezifikoak ezarri dira:

- Kualitatiboki zein kuantitatiboki, eta ahalik eta modu zehatzenean ezaugarritzea Galdakaoko aniztasun funtzionalaren errealitatea.
- Udalerrian bizi diren eta desgaitasuna dutenen kopurua eta oinarrizko aldagai soziodemografikoen (sexua, adina, etab) egitura kalkulatzeko.
- Jakitea aniztasun funtzionala dutenek, parte-hartzaile eta/edo erabiltzaile gisa, nola erabiltzen dituzten udal zerbitzuak, eta nolako den horiekiko duten harremana.
- Udal jarduketako eremuekin (herritarren eta komunitateko parte-hartzea, kultura, aisialdi eta kirol eskaintza, etab) lotuta, haien beharrak eta eskaerak identifikatzeko.
- Gaur egun toki erakundeak aniztasun funtzionala dutenek udal zerbitzuak erabiltzearekin lotuta egiten dituzten eskaera eta beharrei nola erantzuten dien jakitea.

Azterlana Galdakaon bizi diren eta 6 eta 65 urte bitartean dituzten bizilagunekin egin da¹. Azterlana adin tarte horretan egitea erabaki zen, nagusiki bi arrazoiengatik. Alde batetik, 6 urte baino gutxiagokoen artean ohikoa da oraindik ere argi ez detektatu izana desgaitasunaren diagnosirik dagoen edo ez. Beste alde batetik, datuak aztertu eta gero agerian geratu den bezala (ikus 3.atala), 65 urte baino gehiagokoen artean, desgaitasun balorazioa dutenen ehunekoa gainerako adin tartetakoena baino askoz ere handiagoa da. Adinekoen artean desgaitasuna jorratzeko, azterlan espezifiko bat egin behar da gure ustez.

Beste alde batetik, azterlanean landu da nolako den aniztasun funtzionala dutenen parte-hartzea Galdakaoko udal zerbitzuetan, gai hori funtsezkoa baita kolektiboa udalerriko bizitzan gizarteratzeko. Udal zerbitzu hauek aztertu dira: kirol zerbitzuak, kultura zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, umeentzako eta nerabeentzako zerbitzuak, Musika Eskola, herriko jaiak eta udaleko hainbat arloek kudeatzen dituzten bestelako jarduerak.

¹ Usansolo gehitu da, azterlana egin zen unean Galdakaoko lurralde eremuaren barne baitzegoen.

Planteatutako helburuak lortzeko, azterlan honetan metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili dira. Hauek izan dira azterlanean erabili diren teknikak: datu estatistikoak aztertzea; aniztasun funtzionala dutenei edo horien senideei zuzendutako inkesta; udal zerbitzuetako teknikariak edo langileak elkarrizketatzea, eta azkenik, aniztasun funtzionala dutenekin eta haien senideekin taldeko teknika kualitatiboak erabiltzea. Ondoren, teknika guztiak xehetasunez azalduko ditugu.

Datu estatistikoaren analisia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Desgaitasuna Baloratzeko Atalak Galdakaon desgaitasun balorazioa dutenei eta egoiliarak direnei buruz emandako datuak analizatu dira. Eustatek Galdakao udalerraren inguruan argitaratutako datuak ere erabili dira, desgaitasuna duten bizilagunak eta biztanleria guztia konparatzeko.

Analisi horren helburua izan da, desgaitasuna dutenen kolektiboaren ahalik eta irudirik zehatzena eskuratzea, betiere jakinik datu horiek ez dituztela kontuan hartzen desgaitasuna izan arren, baloraziorik ez duten bizilagunak.

Atal honetan, desgaitasun balorazioa duten biztanleak biltzea erabaki da, hau da, 65 urte baino gehiagokoak eta 6 urte baino gutxiagokoak barne. Datu hauek adin tarte horietan daudenei buruz ematen diguten informazioa aprobetxatu nahi izan dugu, erabilgarria izan baitaiteke beraiei zuzendutako etorkizuneko ekimen posibleetan.

Aniztasun funtzionala dutenen inguruko inkesta.

Galdakaoko aniztasun funtzionala dutenen udal parte-hartzea nolakoa den eta zerbitzuok erabiltzeko izan ditzaketen oztopo posibleak zeintzuk diren jakiteko inkesta bat egin zen, eta bertan, nagusiki galdetu zitzairen ea zenbateraino ezagutzen zituzten udal zerbitzuak eta zenbat parte hartzen zuten horietan, eta zein zen ematen zaien laguntzarekiko duten gogobetetasuna, horrelakorik egonez gero.

Inkesta Galdakaoko bizilagunak diren eta desgaitasuna edo laguntza beharrak dituzten 6 eta 65 urtekoen egin zitzairen. 18 urte baino gutxiagoko kasuan, tutore batek (gurasoak edo legezko tutoreak) haien ordean erantzun zuen inkesta. 18 urte baino gehiagokoek inkesta erantzun zezaketen, laguntzarik gabe, edo beren egoera ezagutzen zuen norbaiten laguntzarekin.

Galdetegia anonimoa izan denez, ez da datu pertsonalik eskatu, baina bai datu soziodemografikoak, hala nola generoa, adina, bizi diren auzoa edo ikasketa maila.

Galdetegia Irakurketa Errazean egin zen, EAEko Irakurketa Errazaren lanari esker. Gainera, Nagore Ozerinjauregi eta Esther Cruz UPV/EHUko aditu eta irakasleen lankidetzak eskuzabala izan genuen.

Galdetegia norberak betetzen zuen eta udalaren webgunean eskuragarri egon zen bertan betetzeko, eta paperean ere jasotzeko aukera egon zen udaleko bulegoetan. Telefono bidez erantzuteko aukera ere bazegoen.

Udalaren komunikazio bideen bitartez hedatu zen: Galdakao udalerriko ikastetxe eta institutu ia guztiak eta Otxarkoaga prestakuntza zentroa; Urreta kiroldegiko kirol egokituaren instalazioan; Musika Eskolan; TEAyuda Galdakaoko elkartean; Galdakaoko Gorabide aisialdi taldean, eta aniztasun funtzionalaren esparruan lan egiten duten beste elkarte hauetan: Apnabi, Gaude, Aspace, Asebier, SDPV Fundazioa, Aspertxu, Haszten, Fekoor, Lantegi Batuak, Usoa, FEVAS, Ulertuz, PDP psikopedagogia zentroak eta Hitzza Klinika.

Galdetegia profil oso zehatza eta iristeko zaila duen biztanleria bati bideratu zitzaionez, datuak jasotzeko prozesua luzea eta neketsua izan zen. Hainbat komunikazio kanalen bidez zabaldu zen, besteak beste sare sozialak, mezu elektrikoak, “elur bola” sistema, tokiko komunikabideak, etab.

73 erantzun jaso genituen, baina errore marjina estandarrarekin lan egiteko beharrezko lagina askoz ere handiagoa da. Halaber, galdetegia modu ezberdinetan zabaldu zen, eta zenbait eremutan —hala nola Musika Eskolan, Galdakao TEAyuda elkartean, etab— oso era ezberdinetan erantzun zuten, eta horrek nolabaiteko zehartasuna sortu zuen, zenbait kolektiboren errepresentazioa gehiegizkoa izan zelako, adibidez, desgaitasun intelektuala edo horrekin lotutako garapen desgaitasuna edo laguntza beharrak dituztenena edo adingabe eta gazteena.

Laginarekin errore marjina eta zenbait kolektiboren gehiegizko errepresentazioak sortutako zehartasuna direla-eta, galdetegian jasotako informazioa ikerlanaren zati kualitatiboa osatzen duen inkesta osagarria da.

Fitxa teknikoa:

- **Datuak noiz jaso ziren:** 2023ko martxotik maiatzera.
- **Galdetegi mota:** norberak betetzekoa.
- **Galdetegia betetzeko moduak:** online, udal bulegoetan zegoen paperezko formatuan, erakunde kolaboratzaileen bitartez eta telefonoz.
- **Unibertsoa:** 990
- **Lagina:** 73
- **Errore marjina:** $\pm\%$ 10,8, % 95eko konfiantza mailarekin.

Udal zerbitzuetako teknikariei eta langileei egindako elkarrizketak.

Udal eskaintza, aniztasun funtzionala dutenek eskaintza horretan parte hartzeko dituzten aukerak, zerbitzuen arduradunek aurkitu ditzaketen oztopo posibleak eta kolektiboaren eskariei ematen ari zaien erantzuna ezagutzeko, zazpi elkarrizketa egin zitzaizkien Galdakaoko udal zerbitzuetako teknikariei eta langileei (1. taula).

Elkarrizketak erdi egituratuta zeuden, eta galdera irekien gidoi bat zegoen, hala, elkarrizketatuek esandakoei egokitzeko aukerarekin.

1. taula Elkarrizketatutako Galdakaoko udal zerbitzuetako teknikarien edo langileen profila.

Elkarrizketa zenbakia	Elkarrizketatuen profila
1	Kirol Arloko teknikariak
2	Kultura, Gazteria eta Jaien Arloko teknikariak
3	Hezkuntza eta Euskara Arloko teknikariak
4	Gizarte Zerbitzuen arloko teknikariak eta langileak
5	Musika Eskolako langileak
6	Argizai elkarteko ludoteka eta topagune zerbitzuetako langileak
7	Gorabide elkarteko denbora libre taldeko boluntarioa

Iturria: geuk egindakoa.

Aniztasun funtzionala dutenekin edo haien senideekin erabilitako taldeko teknika kualitatiboak

Azkenik, aniztasun funtzionala dutenek udal zerbitzu eta jardueretan parte hartzen izan dituzten esperientziak eta horiek erabiltzeko aurkitu izan dituzten balizko oztopoak jaso dira.

Informazio hori jasotzeko dinamikak parte-hartze mailaren arabera egokitu dira. Hasieran, alde batetik, talde fokalak egin nahi izan dira aniztasun funtzionala dutenen senideekin, eta beste alde batetik, talde fokalak eta elkarrizketak egin nahi izan dira aniztasun funtzionala dutenekin, askotariko dinamiketan parte hartzeko zuten gaitasunaren arabera. Era berean, askotariko desgaitasunak presente egotea izan da helburua, horrela, udalean parte hartzeko izan ditzaketen oztopoen berri izateko.

Bukatzeko, talde fokala mantendu da aniztasun funtzionala dutenen senideekin. 9 senidek parte hartu zuten, 8 emakumek eta 1 gizonek. Parte-hartzaileen seme-alabek desgaitasun intelektuala, garapeneko edo neurologikoa zuten, eta hainbat adinetakoak ziren.

Orobat, emakume batekin banakako elkarrizketa bat ere egin zen; desgaitasun intelektuala edo garapeneko duen adingabe baten ama zen, eta ahalik eta parte-hartze handiena lortzeko teknikak egokitzeagatik gauzatu zen horrela.

Aniztasun funtzionala dutenek gutxiago parte hartu zuten, hiru parte-hartzailez osatutako hiruki taldea egin zen, adin ertaineko bi gizon eta emakume bat, entzumen desgaitasuna eta mugikortasun murriztua dutenak.

3. DESGAITASUN BALORAZIOA DUTENEN DATUAK

Atal honetan Bizkaiko Foru Aldundiaren Desgaitasuna Baloratzeko Atalak emandako desgaitasun balorazioa duten Galdakaoko bizilagunen datuak analizatu ditugu. Eustatek udalerriko biztanleria orokorrari buruz dituen datuekin ere konparatu ditugu, zenbait daturen banaketan egon daitezkeen diferentzia batzuk detektatzeko.

Informazio horri esker, zehaztasunez jakingo dugu desgaitasun balorazioa duten zenbat bizilagun bizi diren Galdakaon. Hala eta guztiz ere, badaude aniztasun funtzionala edo laguntza beharrak dituzten baina baloraziorik ez duten bizilagunak, eta horiek, analisi honetatik kanpo geratu dira. Horrenbestez, nahiz eta zifra hauek informazio baliagarria ematen diguten udalerrian desgaitasuna dutenen biztanle batzuei buruz, ez dugu ahaztu behar Galdakaon erregistro horretan agertzen direnak baino kolektibo horretako bizilagun gehiago daudela.

3.1. EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Galdakaon 29.325 biztanle zeuden errolatuta 2022ko urtarrilaren 1ean (1. taula). Horietatik **1.725ek desgaitasun balorazioa** zuten (2023ko urtarrilaren 1ean²). Hau da, **Galdakaoko biztanleen % 5,9k** aitortutako desgaitasuna du.

1. taula: Galdakaoko biztanleria orokorra (2022) eta desgaitasun balorazioa dutenak (2023) (absolutuak eta ehunekoak).

	Galdakaoko biztanleria
Biztanleria orokorra, 2022	29.325
Desgaitasuna duten biztanleak, 2023	1.725
Desgaitasun balorazioa duten biztanleak, 2023 (%)	% 5,9

Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eustaten datuak oinarri hartuta.

Sexuen araberako banaketari dagokionez³, **gehienak gizonak dira**. Galdakaon desgaitasun balorazio duten 1.725 bizilagunetatik, 1.030 gizonak dira eta 695

² Bizkaiko Foru Aldundiak Galdakaoko desgaitasun balorazioa dutenei buruz emandako datuak 2023ko urtarrilaren 1ekoak dira. Hala eta guztiz ere, Eustaten eskuragarri dauden Galdakaoko biztanleria orokorraren datuak 2022ko urtarrilaren 1ekoak dira. Data horien artean Galdakaoko biztanleria orokorrean gertatu izan den aldaketa gorabehera, egokitzat jo da beraien artean konparatzea bi datu baseak.

³ Bizkaiko Foru Aldundiaren datuetan "sexua" aldagaia agertzen da.

emakumeak (2. taula). Hala, desgaitasun balorazioa duten 5 biztanleko 3 gizonak dira, zehazki, % 59,7. Diferentzia hori adin tarte guztietan gertatzen da.

2. taula: Galdakaoko biztanleria orokorra (2022) eta desgaitasun balorazioa dutenak (2023), sexuaren-generoaren arabera (absolutuak eta ehunekoak).

	Biztanleria orokorra, 2022		Desgaitasuna duten biztanleak, 2023	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Emakumeak	14.901	% 50,8	695	% 40,3
Gizonak	14.424	% 49,2	1.030	% 59,7
Guztira	29.325	% 100,0	1.725	% 100,0

Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eustaten datuak oinarri hartuta.

Biztanleen ⁴ adina kontuan hartuta, ikus dezakegu nola adinak aurrera egin ahala, desgaitasuna duten biztanle gehiago daudela (1. grafikoa). Umeak aztertuta, Galdakaon 6 urte edo gutxiago duten eta desgaitasun balorazioa duten 7 ume daude, eta adin tarte horretako guztien % 0,5 dira. Hurrengo adin tarteetan pixka bat gehiago dira desgaitasun balorazioa dutenak, zehazki, 7 eta 12 urte arteko guztien % 2,2 eta 13 eta 17 urte arteko guztien % 2,9.

18 eta 45 urte artean eta desgaitasun balorazioa duten herritarrak gehiago dira datu absolutuetan (293 pertsona), adin tarte handia baita. Alderantziz, datu erlatiboetan, aurreko taldeen joera mantentzen da, eta adin tarte horretako biztanle guztien % 3,2 dira.

46 urtetik aurrera dutenen artean, nabarmenki handitzen da desgaitasun balorazioa dutenen kopurua: 46 eta 64 urte arteko 614 bizilagun dira, hau da, adin tarte horretako biztanleria guztiaren % 6,9. 65 urtetik aurrera zifrak gehitzen jarraitzen du, eta Galdakaon adin tarte horretan desgaitasun balorazioa dutenak 739 dira. Kolektiboak biztanleria guztiarekiko duen proportziorik handiena adin tarte horretan bertan gertatzen da, % 10,7 baitira.

Laburbilduz, desgaitasun balorazioa dutenen kopurua adinarekin batera handitzen da, batzuek beren bizitzako uneren batean gerora sortutako desgaitasunen bat izaten dutelako, edo ⁵ jaiotzetiko desgaitasuna duten batzuen kasuan, diagnosiak berandu egiten direlako⁶. Horrenbestez, desgaitasun balorazioa dutenak Galdakaoko biztanleen % 5,9 dira, baina ehuneko hori nabarmenki aldatzen da adinaren arabera: desgaitasun


⁴ Datu horiek adinaren informazioa adin tarte handietako taldeetan multzokatzen dute: 0-3 urte, 4-6 urte, 7-12 urte, 13-17 urte, 18-45 urte, 46-64 urte eta 65 urte edo gehiago.

⁵ Gerora sortutako desgaitasuna 6 urtetik aurrera sortzen dena da, eta kanpoko egoerengatik edo jaiotzetikoak ez diren barneko egoerengatik sor daiteke.

⁶ Jaiotzetiko desgaitasuna jaiotzean edo lehen 3 urteetan garatzen dena da.

balorazioa eta 65 urte eta gehiago dituztenak % 10,7 dira, 18-45 urte artekoak % 3,2 eta 6 urte baino gutxiagokoak, % 0,6.


1. grafikoa: Galdakaoko desgaitasun balorazioa duten biztanleak (2023) eta biztanleria orokorrarekiko duten kopurua (2022), adin taldeen arabera (absolutuak eta %).



Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eustaten datuak oinarri hartuta.

Azaldu denaren ildotik, eta 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, **aitortutako desgaitasuna dutenen kolektiboa nabarmenki zaharra da**, % 42,8k 65 urte edo gehiago baitituzte, eta biztanleria guztiaren tarte berean desgaitasuna dutenak % 23,5 dira.


2. grafikoa: Galdakaoko biztanle guztiak, adinaren arabera banatuta (2022), eta desgaitasun balorazioa dutenak (2023) (%).



Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eustaten datuak oinarri hartuta.

Bestalde, desgaitasun aitortua dutenen sexuen arabera banaketa askotarikoa da hainbat adin tartetan, baina talde guztietan gehienak gizonak dira. 17 urte eta gutxiagokoen taldean⁷, % 35,4 emakumeak dira. **18 urtetik aurrera, emakumeen presentzia pixka bat handiagoa da eta % 40 inguru dira.**

3. grafikoa: Desgaitasun balorazioa dutenen Galdakaoko biztanleen banaketa, adin talde bakoitzean eta sexuaren-generoaren arabera (%). 2023.



Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarri hartuta.

3.2. DESGAITASUN EHUNEKOA

Balorazioa egitean ezartzen den desgaitasun ehunekoari dagokionez⁸, Galdakaon **pertsona gehien dituen desgaitasun tartea 33-44 puntuena da**, zehazki, 750 pertsonarekin (desgaitasun balorazioa duten guztien % 43,5) -3.taula-. Ondoren, pertsona gehien dituzten tartek aipatutakoa baino handiagoak dira, hau da, 45-64 puntu eta 65-74 puntu, hurrenez hurren 300 (% 17,4) eta 328 (% 19,0) pertsonarekin. Bestalde, **pertsona gutxiago dituzten desgaitasun tartek muturretan daudenak dira**. 172 pertsonek desgaitasuneko 0-32 puntu dituzte (% 10,0) eta 175ek, 75 puntu edo gehiago (% 10,1).

7 0-3, 4-6, 7-12 eta 13-17 urte dituztenen taldeak talde bakarrean bildu dira (0-17 urte), 5 pertsona baino gutxiago dituzten taldeetako kideen anonimotasuna babesteko.

8 Eskuragarri ditugun datuek desgaitasun mailaren informazioa tarte handietan ematen dute: 00-32 puntu, 33-44 puntu, 45-64 puntu, 65-74 puntu eta 75 puntu (gehieneko 100 puntuko mugarekin).


3. taula: Galdakaon desgaitasun balorazioa dutenak, desgaitasun tarteen arabera (absolutuak eta %). 2023.

	Bizilagunak	%
00 - 32 puntu	172	% 10,0
33 - 44 puntu	750	% 43,5
45 - 64 puntu	300	% 17,4
65 -74 puntu	328	% 19,0
75 puntu edo gehiago	175	% 10,1
Guztira	1.725	% 100,0

Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarri hartuta.

Desgaitasun tartekak sexuen arabera banatuta, gizon gehiago daude 33 eta 74 puntuko tartean, eta feminizazio tasa % 40 ingurukoa da (4.grafikoa). Alderantziz, **tarte baxuena eta altuena dira feminizatuenak** aurretik aipatu direnekin alderatuta. Hala, 00-32 puntuetako tarteko feminizazio tasa % 46,5koa da, eta 75 puntu eta gehiagoko tartekoa % 48,6koa.

4. grafikoa: Desgaitasun balorazioa dutenen Galdakaoko biztanleen banaketa, desgaitasun tarte bakoitzean eta sexuaren arabera (%). 2023.




Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarri hartuta.

Adin taldeen arabera desgaitasun tarte bakoitzaren presentziari dagokionez, **guztietan ere kopuru handiena duen desgaitasun ehunekoa 33-44 puntukoa da**. 17 urte edo gutxiagoko adin tartean, oso urriak dira 45 puntu edo gehiagoko desgaitasun

ehunekoa duten balorazioak. Hala eta guztiz ere, gehitu egiten dira 18 eta 45 urte artekoen taldean, bai gerora sortutako desgaitasunengatik, bai eta adinean aurrera egin ahala, desgaitasun ehunekoa handitu egiten delako. Bestalde, 65 urte edo gehiagoko adin taldean, 32 puntu edo gutxiagoko desgaitasun balorazioen kopurua murriztu egiten da aurreko adin taldearekin alderatuta. Baliteke hori zahartzarora iristean kasu batzuetan desgaitasuna areagotu egiten delako, eta hala, ehuneko handiagoa eskuratzen duelako izatea.

5. grafikoa: Desgaitasun balorazioa dutenen Galdakaoko biztanleen banaketa, adin talde bakoitzean eta desgaitasun tarteen arabera (%). 2023.



Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarri hartuta.

3.3. DESGAITASUN MOTA


Bizkaiko Foru Aldundiak emandako 2023ko Galdakaoko desgaitasun balorazioen datuek erakusten dute baita ere zein den balorazio bakoitzeko desgaitasunaren nolakotasuna edo mota. Aztertzeo, askotariko ezaugarriak desgaitasunaren sei kategoria handi hauetan multzokatu dira ⁹: fisikoa (mugimenduari eta/edo motrizitateari

⁹ Desgaitasun kategoriak eskuragarri dauden datuekin eta honako gidako sailkapenarekin bat etorriaz definitu dira: EDEKA. (2022). *Nola hitz egin desgaitasuna dutenen inguruan. Komunikazioa oinarri hartuta eraikitzeo gomendioen gida laburra. Nola hitz egin desgaitasuna dutenen inguruan*:https://fevas.org/wp-content/uploads/2022/10/EDEKA_Guia_CAS.pdf

eragiten dio), sentsoriala (entzumen edo ikusmen desgaitasuna eta beste zentzumenei eragiten dieten beste batzuk), intelektuala (arazoak hizkuntzarekin, mugikortasunarekin, norbere burua zaintzeko eta/edo bizi independentea izateko), mentala (nahasmendu mentalarengatik), neurogarapeneko (memoria, ikaskuntza, mintzamina eta bestelakoak koordinatzen dituzten garuneko zonei eragiten die) eta desgaitasun anitza (hainbat desgaitasun mota gertatzen direnean).

Galdakaon, **kopuru absolutuetan, desgaitasun garrantzitsuena fisikoa da** (6. grafikoa). 918 biztanlek dute aitortutako desgaitasun fisikoa, hau da, kolektibo guztiaren erdiak baino gehiagok (% 53,2). Bigarren desgaitasunik ohikoena intelektuala da, 302 herritarrekin (% 17,5). Hurrengoa desgaitasun sentsoriala da, 272 biztanlerekin (% 15,8). Gero desgaitasun mentala dago, 193 pertsonekin (% 11,2). Azkenik, Galdakaon gutxien dauden desgaitasun motak neurogarapeneko, 29 pertsonekin (% 1,7) eta desgaitasun anitza dira, 10 herritarrekin (% 0,6).

6. grafikoa: Galdakaon desgaitasun balorazioa dutenak, desgaitasun motaren arabera (%). 2023.




Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarri hartuta.

Gizon eta emakumeen kopurua aldatu egiten da desgaitasun motaren arabera¹⁰. Hala, nabarmenki emakume gutxiago daude desgaitasun fisikoan (emakumeen % 37,3), intelektualean (% 39,4) eta mentalean (% 40,4). Alderantziz, neurogarapeneko desgaitasunean (% 48,3) eta sentsorialean (% 49,6) sexuen arteko oreka handiagoa da.

¹⁰ Ez dugu jaso desgaitasun anitza dutenen generoaren araberako banaketarik, sekretu estatistikoa errespetatzearren, 5 pertsona baino gutxiagokoen datuak baitira.

7. grafikoa: Galdakaon desgaitasun balorazioa dutenen feminizazio tasa, desgaitasun motaren arabera (%). 2023.




Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarri hartuta.

Askotariko desgaitasun motak adin taldeen arabera banatuta, **0-17 urte arteko tartean, desgaitasun motarik ugariena intelektuala da**, taldeko % 56,1. **Adinak aurrera egin ahala nabarmenki handitzen da desgaitasun fisikoa dutenen kopurua**, gerora sortutako egoerengatik, eta 0-17 urteetan % 23,2 da eta 65 urte eta gehiagokoen taldean % 62,0koa. Neurri txikiagoan bada ere, desgaitasun sentsoriala gehitu egiten da baita ere adinak aurrera egin ahala.

Desgaitasun intelektualaren kasuan, pertsona kopurua handitu egiten da 18-45 urtekoen talderaino (% 37,2), baina gutxitu egiten da 46-64 urteko taldea eta gero (% 16,9). Desgaitasun mentala dutenen kopurua handitu egiten da baita ere 46-64 urteko talderaino (% 16,8), baina gutxitu egiten da 65 urte edo gehiagokoen taldean (% 6,2). Jaitsiera horiek ez dute esan nahi adin batera iristean diagnosia ezabatzen denik. Alderantziz, kopuruak gutxitzen dira orain dela hamarkada edo urte batzuk egoera horiek ez zirelako hainbeste aitortzen. Hala, **azken urteetan, desgaitasun intelektuala edo mentala dutenen beharrak gehiago aitortzen hasi dira, eta horrenbestez, adin txikiagoetan, biztanle gehiagok jasotzen dute balorazioa.**

8. grafikoa: Desgaitasun balorazioa dutenen Galdakaoko biztanleen banaketa, adin talde bakoitzean eta desgaitasun motaren arabera (%). 2023.



Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarri hartuta.

4. ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO INKESTAREN ANALISIA


Atal honetan Galdakaoko aniztasun funtzionala dutenei eta haien senideei udal zerbitzuetan parte hartzeari eta horien erabilerari buruz egindako inkestan jasotako datuak analizatu ditugu. Lehenik eta behin, laguntza behar orokorrak eta galdetutakoen desgaitasun motak landuko ditugu. Gero, parte-hartzearen, udal zerbitzuen erabileraren eta laguntza beharren blokea jorratuko dugu. Azkenik, galdetutakoek udal zerbitzu eta jardueren inguruan egin duten balorazioa aztertuko dugu. Galdetutakoen ezaugarri soziodemografikoak ezagutzeko, ikus II. eranskina. Galdetegiko galderak III. eranskinean daude.

4.1. LAGUNTZA BEHARRAK ETA DESGAITASUN MOTA

Galdetutakoen % 11,0k bakarrik esan zuten ez duela eguneroko jarduerak egiteko egokitzapenik behar (9. grafikoa). Gainerakoek laguntza behar dute, hau da, galdetutakoen erdiak baino gehiagok; batzuek zenbaitetan (% 53,9) eta beste batzuek modu iraunkorrean (% 34,2). Horrenbestez, 10 pertsonatik ia 9k esan zuten beraien desgaitasuna dela-eta, egunerokotasunerako nolabaiteko laguntzak edo egokitzapenak behar dituztela.

9. grafikoa. Galdetutako Galdakaoko aniztasun funtzionala dutenek egunerokotasuneko jarduerak egiteko behar dituzten laguntzak edo egokitzapenak.

P7. Egunerokoan laguntzak edo egokitzapenak behar dituzu?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Galdetutako gehienek (% 87,7) desgaitasun balorazioa dute.

10. grafikoa. Galdetutako Galdakaoko aniztasun funtzionala dutenen desgaitasun balorazioa.

P9. Desgaitasunaren balorazioa daukazu?



Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Galdetutakoen artean ohikoena den desgaitasun mota intelektuala edo garapenekoa (% 35,6) da (4. taula). Bigarrenik, desgaitasun anitza dutenak (% 31,5) daude. Hirugarrenik, desgaitasun psikikoa edo mentala (% 15,1) dutenak daude. Laugarrenik, fisikoa (% 9,6) dutenak. Jende gutxieneko desgaitasun mota sentsoriala (% 4,1) da. Azkenik, % 2,7k ez du diagnosirik oraindik. Desgaitasun anitza dutenen artean, desgaitasun motarik ohikoena intelektuala edo garapenekoa (% 35,1) da, ondoren psikikoa edo mentala (% 26,3), gero fisikoa (% 22,8) eta azkenik sentsoriala (% 15,8).

4. taula Galdetutako Galdakaoko aniztasun funtzionala dutenen desgaitasun mota. P8: Nolako desgaitasuna edo oztopoak dituzu parte hartzeko?


	Desgaitasun mota, %	Desgaitasun anitza %
Fisikoa	9,6	22,8
Sentsoriala	4,1	15,8
Intelektuala edo garapenekoa	35,6	35,1
Psikikoa edo mentala	15,1	26,3
Desgaitasun anitza	31,5	-
Gaur egun ez dakit	2,7	-
Ed/Ee	1,4	-
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Gehienek (% 58,9) desgaitasuna dutenen elkarte batean parte hartzen dute, edo bertako kideak dira (Galdakaoko edo kanpoko elkarteak) -11. grafikoa-. Alderantziz, % 34,2k ez dute horrelako erakunde batean parte hartzen.

11. grafikoa. Galdetutako Galdakaoko aniztasun funtzionala dutenen parte-hartzea desgaitasuna dutenen erakundeetan.

P10. Desgaitasuna duten pertsonen laguntza ematen dien elkarte bateko kidea zara?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Aisialdiari dagokionez, galdetutakoen % 31,5ek ez du inolako aisialdi-jardueretan parte hartzen (adibidez, denbora libreko taldeetan edo kirol klubetan) -12. grafikoa-. Alderantziz, % 61,6k aisialdi jardueretan parte hartzen du. Aisialdi jardueretan parte hartzen dutenen artean, % 35,6k desgaitasunik ez dutenekin egiten du, eta % 26,0k bakarrik desgaitasuna dutenekin.

Aurreko datuetatik, lehendabizi azpimarratu behar dugu askok diola ez duela inolako aisialdi jardueretan parte hartzen (10etik 3k). Bigarrenik, oso garrantzitsua da baita ere 10etik 3k bakarrik desgaitasuna dutenekin parte hartzearen datua. Inguruabar biak batuta, oso agerikoa da aniztasun funtzionala duten 10etik 6k beren aisialdia ez dutela partekatzen desgaitasunik ez dutenekin, bai jarduerarik egiten ez dutelako (edo familiarekin egiten dituztelako), edo jarduerak egiten dituztenean, bakarrik aniztasun funtzionala dutenekin egoten direlako.

12. grafikoa. Desgaitasunik ez dutenekin parte hartzea aisialdi jardueretan.

P11. Aisialdia (aisialdi taldeak, lagun taldea, kirol taldea...) desgaitasunik ez duten pertsonekin batera partekatzen duzu?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

4.2. PARTAIDETZA ETA LAGUNTZA BEHARRAK

Aurretik aipatutako aniztasun funtzionala dutenen laguntza beharrekin lotuta, inkestan galdetu zitzairen ea behar berberak zituzten udal zerbitzuetan parte hartzeko. **Galdetutako gehienek nolabaiteko laguntza behar dute udal zerbitzuetan parte hartzeko**, zehazki, % 74k (13. grafikoa).

13. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jardueretan edo zerbitzuetan parte hartzeko laguntza behar izatea edo ez.

P13. Laguntzak behar dituzu Galdakaoko Udalak antolatutako ekintzetan parte hartzeko?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Udal jarduera eta zerbitzuetan parte hartzeko behar dituzten laguntzen nolakotasunaren inguruan galdetuta, **oso nabaria da jarduera egiteko norbaiten beharra dutela** (jarduera osorik edo haren zati bat egiteko). Parte hartzeko nolabaiteko laguntza behar dutenen % 68,8k norbaiten beharra du (14. grafikoa). Gehien behar duten hurrengo laguntza oztupo arkitektonikoak gainditzekoa da: % 15,6k behar dute horretarako laguntzaren bat. Gainerako laguntzak minoritarioagoak dira, baina ez dira albo batera utzi behar: zeinu hizkuntzaren interpretazioa (% 4,7), ikusmen urritasuna dutenentzako edo itsuentzako laguntzak (% 1,6), piktogramak (% 1,6), gorren entzungailuak (% 1,6) eta azpigituluak (% 1,6).

14. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jardueretan edo zerbitzuetan parte hartzeko laguntza motak.

P13. Nolako laguntzak behar dituzu Galdakaoko Udalak antolatutako ekintzetan parte hartzeko?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Laguntza horien beharraren maiztasunari dagokionez, gehienek (% 70,4) beti behar dituzte (15. grafikoa). Alderantziz, % 20,4k udal jardueretan parte hartzeko behar duen laguntza puntuala da.

15. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jardueretan edo zerbitzuetan parte hartzeko laguntza beharraren maiztasuna.

P14. Laguntza hori beti ala noizean behin behar duzu?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Galdakaoko udal zerbitzuetan galdetutakoek laguntza jaso dutenean, **gehienetan zerbitzutik edo udaletik kanpoko norbaitek eman die** (% 43,2): % 43,2ri senide batek, % 15,9ri elkarteko kide batek, eta % 4,5i laguntzaile pertsonal batek (16. grafikoa). Noizbait udalaren zerbitzuak edo jarduerak emandako laguntza jaso dutenak bakarrik galdetutakoen % 18,2 izan dira.

16. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jardueretan edo zerbitzuetan parte hartzeko laguntzailearen profila.

P15. Batez ere, nork eman dizu laguntza hori behar izan duzunean?



Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Azterketan, eta bereziki inkestan, zenbait udal zerbitzu edo jarduera hizpide izan dira, zehazki, honako hauek: liburutegia; zinema, antzokia eta bestelako kultura ekitaldiak; kiroldegia, gizarte zerbitzuetako jarduerak; herriko jaiak; topaguneak eta ludotekak; udalekuak, eta musika eskola.

Udal zerbitzuetako parte-hartze mailari dagokionez, 14. grafikoan ikus daiteke Urreta eta Unkinako kiroldegiko instalazioen erabilera librea dela galdetutako gehienek parte hartzen duten zerbitzua: % 23,3k modu jarraituan, eta beste horrenbestek puntualki. Asko dira baita ere zerbitzua ezagutu arren, bertara joaten ez direnak (% 27,4), eta gutxienentzat ezezaguna den zerbitzua da (% 8,2).

Jende gehien biltzen duen hurrengo udal jarduera herriko jaiak dira (Galdakaokoak, Usansolokoak eta auzoetakoak), non galdetutakoek % 43,8k puntualki edo modu jarraituan parte hartzen duen.

Liburutegiko parte-hartzea ere handia (% 39,7) da, eta askok ezagutzen dute zerbitzua, erabiltzen ez duten arren (% 28,8). Berbera gertatzen da zinemarekin: galdetutakoek % 39,7k parte hartzen du, eta % 26,0k ezagutzen du. Bi zerbitzu horietan, handiagoa da parte-hartze puntuala jarraitua baino, zerbitzuen nolakotasunarengatik hain zuzen ere. Kirol jardueretan, besteak beste Urretako eta Usansoloko kiroldegietako ikastaroetan, txapelketetan, eta abarrear, % 30,1ek parte hartzen du, eta % 28,8k ezagutzen ditu.

Musika Eskolako partaidetza handia da, % 28,8koa, eta galdetutako askok zerbitzua ezagutzen dute, nahiz eta bertan parte hartu ez. Galdetutakoek artean modu jarraituan gehien parte hartzen duten zerbitzua da, berriro ere, parte hartzeko jarraikortasuna behar baita. Musika Eskolan modu jarraituan edo puntualki askok parte hartzen dute, udal zerbitzu honek bere burua ezagutarazteko egindako esfortzua dela-eta.


Udalak antolatzen dituen antzerkiak, kontzertuak eta bestelako kultura ekitaldiak galdetutakoak gutxien joaten diren zerbitzuetako batzuk dira (% 26,0).

Azkenik, Gizarte Zerbitzuetako jardueretan parte-hartze maila oso txikia da, bakarrik % 6,9koa. Asko dira baita ere zerbitzua ezagutzen ez dutenak (% 43,8), eta gainerako zerbitzuak ezagutzen ez dituztenak % 8,2 eta % 15,1 artean daude. Horren arrazoia izan daiteke jarduera oso espezifikoak eta nagusiki adinekoen artean ezagunak direla, eta horiek azterketatik kanpo daude.

Laburbilduz, aniztasun funtzionala dutenek modu jarraituan gehien erabiltzen duten zerbitzua Musika Eskola da. Kiroldegia, liburutegia, zinema eta herriko jaiak libre erabiltzen ere nahikok parte hartzen dute, eta horiek dira parte-hartze gehien duten zerbitzuak, albo batera utzita parte-hartzea jarraitua edo puntuala izatea. Parte-hartze txikienetakoa duen hirugarren taldean daude, alde batetik, kiroldegiko jarduerak edo udalak antolatutakoak, eta bestetik, antzerkiak eta kontzertuak. Azkenik, Gizarte Zerbitzuetako jarduerak laugarren talde batean daude, parte-hartze txikiena duena, eta galdetutakoek ia erdiak ez du ezagutzen zerbitzua.

17. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jarduerak edo zerbitzuak ezagutzea eta horietan parte hartzea.

P12. Ezagutu edo parte hartu duzu Galdakaoko Udalak antolatutako ekintza edo zerbitzu hauetan?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Udalak antolatutako ludoteketan, topaguneetan eta udalekuetan¹¹, zerbitzu horietan parte hartzeko adina duten galdetutakoen parte-hartzea nahiko handia da. Galdetutakoen % 50ek modu jarraituan edo puntualean parte hartzen du topaguneetan edo ludoteketan. % 16,7k ezagutu bai, baina ez du horietan parte hartzen, eta % 8,3k ez ditu ezagutzen. Udalak antolatutako udalekuetan, parte-hartze maila oso antzekoa da, baina zerbait txikiagoa: % 47,0k modu puntualean edo jarraituan parte hartzen du, % 11,8k ezagutu arren ez du horietan parte hartzen, eta % 5,9k ez ditu ezagutzen.

¹¹ Udalekuen, ludoteken eta topaguneen zerbitzuak aztertzeko, bakarrik 12 urtetik beherakoen eta 17 urtetik beherakoen erantzunak jaso dira, hurrenez hurren.

18. grafikoa. Topaguneak eta ludotekak (17 urte edo gutxiago) eta udalak antolatutako udalekuak (12 urte edo gutxiago) ezagutzea eta horietan parte-hartzea.

P12. Ezagutu edo parte hartu duzu Galdakaoko Udalak antolatutako ekintza edo zerbitzu hauetan?



Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Datuek diote parte-hartzea handia dela (jarraitua edo puntuala) kiroldegien, topaguneen, ludoteken eta udalekuen erabilera librean.

Egia da Musika Eskola dela modu jarraituan pertsona gehiagok parte hartzen duten jarduera, baina egia da baita ere zerbitzu horretan parte hartzeko ia modu bakarra dela, beharrezkoa baita matrikulatzea eta astero eskolara joatea.

Datu horiek ezin dira interpretatu galdetegiak erantzun dituztenen adinaren banaketak ezartzen duen zehartasuna kontuan hartu gabe, 17 urtetik beherakoek argi eta garbi gehiegizko errepresentazioa baitute laginean. Horregatik, handia da ume eta nerabeei zuzendutako zerbitzuetako parte-hartzea.

Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabe zeharra dena, kontuan hartu beharreko datua ere izan daiteke, interpreta baitaiteke baita ere 17 urte baino gutxiagoko desgaitasuna dutenak eta beren senideek interes gehiago izan dutela azterlanean parte hartzeko, komunitateko parte-hartzearekin alderatuta jakitunago baitira desabantaila egoeran daudela, familiek landa lan kualitatiboagoan esan zutenaren arabera.

4.3. UDAL ZERBITZUEN BALORAZIOA

Galdakaoko Udaleko zerbitzuek ematen dituzten edo ez dituzten laguntzen eta galdetutakoek horiekiko duten gogobetetasunaren inguruan galdetzean, zerbitzuen hiru talde bereizi behar dira (19. grafikoa).


Alde batetik, galdetutako gehienek laguntzarik ez dagoela erantzun duten zerbitzuak hauek dira: zinema (% 57,1), antzerkia eta/edo kontzertuak (% 55,6), herriko jaiak (% 55,6), liburutegia (% 43,3) eta gizarte zerbitzuen jarduerak (% 41,7, aukera honekin bezala: badaude laguntzak, baina ez dira nahikoak).

Bigarren taldean daude kiroldegietako jarduerak. Zerbitzu horietan, galdetutako gehienek laguntzei buruz esaten dute “badaudela, baina ez direla nahikoak”: kiroldegia libre erabiltzea (% 48,1) eta kirol jarduerak (% 48,4).

Azkenik, Musika Eskola da laguntza gehien dituen zerbitzua, galdetutakoen % 53,8k esan baitzuen laguntza egokiak daudela.

19. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jarduera edo zerbitzuetan laguntzak egotea eta horien balorazioa.

P17. Zure ustez, nolakoak dira zerbitzu hauetan ematen diren laguntzak?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Topaguneen eta ludoteken kasuan, bakarrik galdetutakoen % 38,5 dago pozik ematen dituzten laguntzekin (20. grafikoa). Gainerakoek uste dute badaudela laguntzak baina ez direla nahikoak, edo ez dagoela laguntzarik. Bestalde, udalekuei dagokienez, galdetutako gehienek esan zuten badaudela laguntzak (10etik 8k), baina askok uste dute ez direla nahikoak (10etik 7ik).

20. grafikoa. Topaguneetan eta ludoteketan (17 urte edo gutxiago) eta udalak antolatutako udalekuetan (12 urte edo gutxiago) laguntzak egotea, eta laguntza horien balorazioa.

P17. Zure ustez, nolakoak dira zerbitzu hauetan ematen diren laguntzak?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Galdetutakoek udaleko askotariko zerbitzu eta jardueretan desgaitasunik ez dutenekin izan zuten harremana gehienentzat “ona” izan zen, % 85,1 eta % 100,0 artean, zerbitzuaren arabera (21. grafikoa).

21. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jardueretan edo zerbitzuetan desgaitasunik ez dutenekiko harremanaren balorazioa.

P19. Nolako harremana izan duzu zerbitzu hauetan desgaitasunik ez dutenekin?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Udalekuen, topaguneen eta ludoteken kasuan, azpimarratzekoa da baita ere aniztasun funtzionala duten adingabeek desgaitasunik ez duten kideekin izan duten harreman ona (22. grafikoa). Galdetutakoen ia % 90ek zerbitzu bietan “ona” izan zela esan zuten.

22. grafikoa. Topaguneetan eta ludoteketan (17 urte edo gutxiago) eta udalak antolatutako udalekuetan (12 urte edo gutxiago) desgaitasunik ez dutenekiko harremanaren balorazioa.

P19. Nolako harremana izan duzu zerbitzu hauetan desgaitasunik ez dutenekin?




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Udal zerbitzuetan gehiago parte hartzea gustatuko ote litzaiekeen galdetzean, galdetutakoetatik gehiagok parte hartu nahiko lukete herriko jaietan, % 90ek esan baitzuten gehiago parte hartu nahiko lukeela (23. grafikoa). Ondoren, hauek daude: zinema (% 77,5), antzerkia eta/edo kontzertuak (% 75,0), kiroldegia libre erabiltzea (% 69,4), kirol jarduerak (% 68,8), Gizarte Zerbitzuetako jarduerak (% 68,0), liburutegia (% 61,8) eta Musika Eskola (% 56,5).

Galdera horri erantzun negatiboa eman dietenen artean, baliteke gaur egun egiten dutena baino gehiago parte hartu nahi ez izatea bi arrazoi hauengatik: (1) jarduera edo zerbitzua ez zaielako interesatzen; (2) aktiboki parte hartzen dutelako jada, eta horrela pozik daudelako. Orokorrean, zerbitzu guztietan gehiago parte hartzeko nahia dago.

23. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jarduera edo zerbitzuetan gehiago parte hartzeko nahia.

P16. Zerbitzu hauetan gehiago parte hartu nahiko zenuke?



Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Udal zerbitzuetan gehiago parte hartu nahiko luketenen artean, nahi luketen bezala parte ez hartzeko arrazoi nagusia laguntza falta da: % 33,3 eta % 68,2 artean, udal zerbitzuetan parte ez hartzearen arrazoia horixe da hain zuzen ere (24. grafikoa). Kasu honetan, nabarmenki gailentzen dira kirol jarduerak, laguntzak gehien faltan botatzen dituzten jardueren artean: % 68,2k ez du parte hartzen arrazoi horrengatik.


Zerbitzuetan gehiago parte ez hartzeko bigarren arrazoi nagusia irisgarritasun fisikoa falta dela da. Azpimarratzekoak dira herriko jaiak eta kiroldegiaren erabilera librea, galdetutakoen % 18,5ek eta % 16,0k ez baitu jarduera horietan parte hartzen arrazoi horrengatik, eta horiek dira ehunekorik handienak.

Tratu ona jaso ez dutelako gehiago parte hartzen ez duten galdetutakoen artean, aurreko arrazoiari agertu diren jarduera berberak gailentzen dira: kiroldegia libre erabiltzea (% 12,0) eta herriko jaiak (% 11,1). Baita liburutegia ere (% 9,5).

Galdetutako batzuek ere ez dute gehiago parte hartzen beste arrazoi batzuegatik, besteak beste arrazoi pertsonalagoak edo erabiltzaile bakoitzaren behar espezifikoak direla-eta.

24. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jarduera edo zerbitzuetan gehiago parte ez hartzeko arrazoia.

P16. Zerbitzu hauetan gehiago parte hartu nahiko zenuke? Erantzuna: baina ez dut egiten honakoagatik...




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Ludoteka eta topaguneen kasuan, 18 urte baino gutxiago eta aniztasun funtzionala duten seme-alaben izenean inkesta erantzun duten guztiei gustatuko litzaieke beren seme-alabek zerbitzu horietan gehiago parte hartzea, baina askotariko arrazoiengatik ez dute egiten (25. grafikoa).

Arrazoi nagusia laguntza falta da: udalekuetan (% 75,0), topagune edo ludoteketan baino gehiago (% 42,9). Topagune eta ludoteken kasuan, badaude batzuk baita ere oztopo arkitektonikoengatik gehiago parte hartzen ez dutenak (% 7,1). Beste % 7,1ek esan zuen baita ere ez duela gehiago parte hartzen tratu onik jaso ez duelako. “Beste arrazoi batzuk” kategoriak ere nahiko garrantzia du udalekuetan (% 25,0) eta topagune eta ludoteketan (% 42,9).

25. grafikoa. Topagune eta ludoteketan (17 urte edo gutxiago) eta udalak antolatutako udalekuetan (12 urte edo gutxiago) gehiago parte ez hartzearen arrazoa.

P16. Zerbitzu hauetan gehiago parte hartu nahiko zenuke? Erantzuna: baina ez dut egiten honakoagatik...




Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

Udal zerbitzuetan parte hartzearen inguruko sentimenduak gehiago dira negatiboak (% 50,0) positiboak (% 40,0) baino (26. grafikoa). Erantzunen % 10 sentimendu erlatibotzat jo litezke, udal zerbitzuetan izandako egoera jakinek sortutako sentimendu positibo zein negatiboak deskribatu baitzituzten.

Sentimendu negatiboen artean hauek daude: diskriminatuta (% 22,5), ikusezina (% 15,0), behatuta edo ezberdina (% 5,0), edo bestelako sentimendu negatiboak (% 7,5). Sentimendu negatiboen artean hauek daude: pozik (% 30,0) edo integratuta eta normal (% 10,0).

26. grafikoa. Galdakaoko Udalaren jardura edo zerbitzuetan parte hartzean sortutako sentimenduak.

P18. Nola sentitu zara ekintza hauetan parte hartzean?



Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

5. ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEK UDAL PARTE-HARTZEARI BURUZ DITUZTEN PERTZEPZIOAK

Atal honetan, aniztasun funtzionala dutenek parte-hartzearen inguruan dituzten pertzepzioak analizatuko ditugu bi ikuspegitatik. Alde batetik, Galdakaoko Udaleko hainbat arloetako teknikarien eta bestelako udal eragileen iritzia, erdi egituratutako elkarrizketa pertsonaletan jaso dena. Beste alde batetik, aniztasun funtzionala dutenen edo beren senideen iritzia, talde fokalen eta elkarrizketa sakonen bitartez jasotakoa.

Atal honetako analisi kualitatiboa zerbitzuen arabera egituratu da: kirol eskaintza, kultura eskaintza, liburutegia, gizarte zerbitzuak, herriko jaiak, haurrak, nerabeak eta gazteak, musika eskola, eta Galdakaoko inklusioari buruzko iritzi orokorrak.

5.1. KIROL ESKAINTZA

Udaleko langileen iritzia

Irisgarritasuna

Urreta eta Unkinako kiroldegietan oztopo arkitektonikoak daude, eta mugikortasun urria dutenen parte-hartzea zailtzen dute. Irisgarritasuna hobetzeko lan egin den arren, oraindik ere instalazioetara guztiz sartzea galarazten duten oztopoak daude, besteak beste kantxetara sartzeko, edo aldatzaile inklusiboak falta dira.

Gainera, irisgarritasun neurriak laguntza gailuei lotuta daude, hala nola plataformak edo igogailuak, eta horrenbestez, horiek matxuratzen badira, ezinezkoa da mugikortasun urria dutenak sartzeko.

“Kiroldegia 2001ekoa da. Ez zen hasieratik egokitu eta egokitzapen txikiak egiten joan dira tramankuluaren bidez. Legeak irisgarritasuna bermatu behar dela esaten duenez, legea bete egiten da. Baina ez da modu operatibo batean egiten. Eskailerak kendu eta aldapa egin beharrean, igogailuak jartzen dira eta, orduan, pertsona tramankuluaren menpe geratzen da. Hau apurtzen bada ezin da pasatu”. (Galdakaoko Udaleko teknikariak eta langileak, E1)

Irisgarritasun zailtasunak kirol ekitaldietara joateko ere badaude, mugikortasun urria dutenek oztopoak baitituzte baita ere txapelketak edo partidak ikusteko, adibidez, egokitutako eserlekuak harmailen goiko aldean daudelako eta eskailerak igo behar direlako, eta zona hori joko eremutik urrutien dagoena da gainera.

Halaber, kirol zerbitzu eta jarduera guztietara pertsona guztiak joan ahal izatea bermatzen duten neurriak ezarri behar dira, horien baldintza fisikoak edo mugikortasuna albo batera utzita, instalazio asko ez baitaude egokituta.

“Kiroldegiko kirol ekintzetan parte hartzerako orduan, parte hartzea debekatuta daukate. Oztopoak daude, instalazio batzuk egokitu gabe daude”. (Galdakaoko Udaleko teknikariak eta langileak, E1)

Laguntzak

Gaur egun, udaleko kirol zerbitzuetan aniztasun funtzionala dutenentzat edo laguntza beharrak dituztenentzat laguntzak ematen dira igerilekuko bi jardueretan. Alde batetik, eskola igeriketako programan, ikastetxeekin batera egiten dena ikasle gazteenekin eskola orduetan. Jarduera horietan, behar duten guztiei laguntzak ematen zaizkie ikastetxeetako langileen laguntza lanei jarraikotasuna emateko, eta irakasleen eskumenengatik, laguntza horiek ezin baitira eman igerilekuko jardueretan. Horregatik, laguntzak Kirol Arloak kudeatzen ditu. Beste alde batetik, igerilekuan ere kirol egokitua egiteko aukera dago, eta bertan ere barne hartzen dira laguntza beharrak. Galdakaoko Udaleko teknikariek esan zuten zerbitzu biak ere oso ongi baloratzen dituztela erabiltzaileek eta kolaboratzaileek. Hala eta guztiz ere, batek ere ez du inklusioa modu zabalagoan lantzen, non laguntza beharrak dituztenak eta ez dituztenak jarduera batera egin dezaketen.

“Oraingo erronka da ikastaro arruntetan desgaitasuna duten pertsonak egotea eta ez egotea bereizita”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E1)

Zerbitzuko gainerako jardueretan, ez da inolako laguntzarik ematen. Zenbaitetan beharrak modu partikularrean estaltzen dira, eta adibidez, laguntzaileak (senideak, lagunak edo udal zerbitzutik kanpoko pertsonak) erabiltzailetzat jotzen dira tasak ordaintzeko.

“Beste kirol arloetan ez dago kirol egokitua ezta inklusiboa: Kantxak, aire librean, futbola, pilota, saskibaloia, boleibola...” (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E1)

“Laguntza behar duen bat laguntzaile batekin joaten bada igerilekura eta azken hori ez bada bainatzen, sarrera ez kobratzea”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E7)

Inklusiorako baliabideak eta askotariko beharrak modu egokian jorratzeko ezagutza edo prestakuntza falta direla esan zuten. Horrenbestez, udal langileek uste dute behar handia dagoela estrategia orokor bat sortu eta arazo hori kudeatzeko, eta estrategia hori langileentzat gida izango litzateke baita ere. Hala, azaldu zuten egungo erronka dela aniztasun funtzionala dutenek oso-osorik modu inklusiboan eta kiroldegien eskaintza osoan parte hartu ahal izatea, gainerako erabiltzaileek bezala.

“Horretarako udalak planteamendu serioagoa egin beharko luke eta aztertu egungo eskaintzaren errealitatea zein den. Susmoa daukagu aukera hori emanda errealitatea gainera etorriko zaigula, hau da, orain kasik ikusezin dauden kasuak bat-batean agertuko direla”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E1)

Aniztasun funtzionala dutenen eta horien senideen iritziak.

Irisgarritasuna

Laguntzak egon edo ez, eta irisgarritasun zailtasunak albo batera utzita, familiek diote inklusiorako benetako oztopoa direla espazioen erabilera araudiak sortutako arazoak. Adibidez, igerilekuan nahitaez txanoa erabili behar izatea, besoetako flotagailuak erabiltzea debekatuta egotea edo kirol instalazio batzuetara gurpildun aulkian sartzea baimentzeko zailtasunak.

“Igerilekuko harmailetara joan eta txapelketak ikusteko ez dago igogailurik. Ez dut uste ikusteko jaisteko aukerarik dagoenik”. (Aniztasun funtzionala dutenen senideekin antolatutako eztabaida taldea)

Familiek diotenez, AEN duten zenbait umek zailtasunak dituzte garapen bestibularrean. Hori dela-eta, arazo handiak izaten dituzte jantzi estuak edo askotariko testurak dituztenak erabiltzeko, besteak beste txanoak.

Beraien ustez, instalazioetara sartu eta horietaz gozatzeko erraztasun gehiago eman beharko lirateke, udalera etengabe kexa txostenak bidali behar izan gabe. Esan zuten, instalazioetako langileek ez dutela enpatiarik.

“Ume bat gurpildun aulki batean ikustean, agerikoa da besoetako flotatzaileak beharko dituela. Bidea errazteko modu bat da”. (aniztasun funtzionala pertsonen senideekin egindako eztabaida taldea)

Ildo berari jarraikiz, familiak kezkatzen dituen beste kontu bat aldagelen erabilerarena da: adibidez, deserosotasunak sortzen dira desgaitasuna dutenen beste sexu bateko laguntzailea aldagelara sartzen denean. Argi dago gabeziak daudela.

“Bereziki aldagelak, komun egokituak egotea ez baita nahikoa, eta nire semea lurrean aldatu behar baitut. Laidogarria da. Sinesgaitza da hain oinarrizkoa den zerbait udalean eskatu behar izatea”. (aniztasun funtzionala pertsonen senideekin egindako eztabaida taldea)

Laguntzak

Elkarrizketatutako familien taldeek adibide zehatzak ematen dituzte laguntza faltari dagokionez. Batzuetan beste udalerrri batzuetako udal zerbitzuetara bideratzen dituzte, eta beste batzuetan bestelako elkarteetara edo aniztasun funtzionala dutenen taldeetara. Laguntzak kudeatzeko baliabide ekonomikoak falta direla uste dute nabarmenki, eta aurretik esan bezala, hori dela-eta, askotan senideak izaten dira laguntzaileak. Nolabaiteko desgaitasuna dutenak artatzeko profesionaltasuna falta dela diote baita ere. Familiek beren ondoeza adierazten dute beren seme-alabek kirol zerbitzuetan parte hartzeko duten eskubidea exijitzeko udalera etengabe hainbat erreklamazio eta idazki bidali eta gero.

“Onartezina da urtez urte borrokatzen eta exijitzen egon behar izatea. Ez da nire urteroko borroka izan behar”. (aniztasun funtzionala pertsonen senideekin egindako eztabaida taldea)

“Erantzukizuna erakundearena izan beharko litzateke, eta ez gurasoena”. (aniztasun funtzionala duten pertsonekin egindako hiruko taldea)

Dinamika kualitatiboetako parte-hartzaileek uste dute baita ere **kiroldegietako begiraleak prestatuago egon beharko liratekeela** umeekiko eta desgaitasuna duten helduekiko esku-hartzean, tratuan eta jokaeran. Azaldu zuten, eskolak emateko beharrezkoa dela langileak prestatuta egotea, eta dinamizazio gaitasuna eta enpatia izatea.

Beste zailtasun bat langileen jarraikortasun falta da. Zenbaitetan, aldaketekiko oso sentikorrak diren pertsonak direnez, erreferenteak aldatzeak ondorio negatiboak izan ditzake beraiengan. Hala, egokia izan daiteke erreferentziazko pertsonak mantentzea, harremana indartzen jarraitzeko eta errutinak gehiegi ez aldatzeko.

“Hurrengo urtean zein begirale izango duten jakiteak kezkatzen nau. Urtero borrokatu behar izaten gara pertsona bera izan dadin. Erreferentea aldatzea nire semearen kalterako izan daiteke”. (aniztasun funtzionala duten pertsonen senideekin egindako eztabaida taldea)

Gainera, komunikazioari dagokionez, nolabaiteko desinformazioa dago kirol arloan aniztasun funtzionala dutenei eta beren familiei ematen zaien udal jarduerara eta eskaintza orokorren inguruan.

Familiek uste dute positiboa dela igeriketa egokituko talde bat sortu izana, eta aldaketa gutxi batzuk gertatu direla diote. Hala eta guztiz ere, beharrezkotzat jotzen dute desgaitasuna dutenak ohiko igeriketa taldeetan eta gainerako kirol jardueretan egotea eta horietan parte hartzea. Aurrekoaz gain, uste dute baita ere udalerriko kirol egokituko eskaintza ez dela nahikoa, bakarrik igeriketa baitago, eta laguntzadun beste kirol batzuk eskaintzeko aukera gehiago egotea beharrezkotzat jotzen dute.

“Nire semeak saskibaloian jokatu nahi zuen, eta hemen ezin du, eta ez litzateke horrela izan behar. Bere herriko kiroldegian kirola egin ahal izateko izena ematea ona litzateke. Baina langileak ez daude prestatuta, ez dago materialik, langilerik...Gaur egun, nire semea Txurdinagara joaten da igeri egitera”. (aniztasun funtzionala duten pertsonen senideekin egindako eztabaida taldea)

Hala, argi dago udaleko kirol jardueretan laguntza espezifikoak egon behar direla arreta pertsonalizatua eta kalitatezkoa emateko. Beraien iritziz, Galdakaoko udal kirol zerbitzuetan desgaitasunarekiko eta erabiltzaileekin zein senideekin egiten den lanarekiko ikuspegi zabala falta da.

5.2. KULTURA ESKAINTZA

Udaleko langileen iritziak.

Irisgarritasuna

Kultura arloan, kezkatuta daude Torrezebal eraikinean eta bestelako kultura espazioetan zailtasun handiak daudelako mugikortasun urria eta aniztasun funtzional sentsoriala dutenen irisgarritasunari eta segurtasunari dagokienez. Kultura espazio horietako irisgarritasunaren ikuspegi profesionala eta sistematikoa falta denez, askorentzat esperientzia baztertzailak sor daitezke, eta horrek eragotzi dezake kultura jardueraz oso-osorik disfrutatu ahal izatea, eta komunitateko bizi kulturalean parte hartzea mugatu dezake.

Mugikortasun urria dutenentzako ebakuazio plan egoki bat faltatzea bereziki larria da, larrialdi kasuetan beren segurtasuna arriskuan baitago. Udaleko teknikariek uste dute kultura espazioak diseinatu eta kudeatzean, irisgarritasuna kontuan hartu beharreko ezinbesteko alderdia izan behar dela.

“Aretoan irisgarritasun arazo larria dago, lurpean baitago, igogailua eta eskailerak eta denetarik dago. Igogailua ezin da erabili sute bat baldin badago, adibidez”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

“Zineman gurpildun aulkientzako lekuak jarri zirenean eskaera egin zuen pertsonak nahi zuenaren arabera egin zuen eta zinegotziak esandakoaren arabera, nahieran. Korridore erdian jarri zen. Eta zerbait gertatzen bada eta barrikada baldin badago zer? Hori aditu batek aztertu behar du”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

Arazo horiek jorrazteko, beharrezkoa da irisgarritasunari eta segurtasunari buruzko ikuspegi proaktiboa izatea, neurriak hartzeko erreklamazioak eta kexak iritsi behar izan gabe, eta esan du horixe dela joera.

“Ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzako egokitzapenak txaplatak izan dira, pixkanaka gehitzen joan diren egokitzapenak. Baina Udalak ez du estrategia edo diseinu espezifikorik”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

Halaber, aniztasun funtzional sentsoriala dutenentzako baliabideak eta laguntzak faltatzean, mugatuta dago horiek hitzaldietara, tailerretara eta bestelako kultura jardueretara joatea. Muga horien artean daude zeinu hizkuntzako interpretazioak, zineman azpтитuluak egotea edo akustika ona egotea espazio irekietan eta aire librean. Oztopo horiek bazterketa eta frustrazio sentimenduak sortzen dizkiete entzumen desgaitasuna dutenei, eta komunitateko kultura eta hezkuntza arloetan guztiz parte hartzeko duten eskubidea kaltetzen dute. Desgaitasun sentsoriala edo ikusizkoa duten edo gorra diren pertsonen irisgarritasuna lantzea bereziki garrantzitsua da aukera berdintasuna eta kultura eskaintzako inklusioa bermatzeko.

Kultura Arloan lanean ari dira horrelako desgaitasunak dituztenen irisgarritasun fisikoa eta sentsoriala errazteko. Zehazki, helburua da desgaitasuna kultura eskaintzako gai bezala gehitzea, eta kolektibo horren sentsibilizazio eta inklusio bitartekotzat jotzea. Kultura arloan lankidetzak egin dira aniztasun funtzionala dutenen talde espezifikoekin, adibidez, Musika Eskolarekin. Ekitaldien aretoa egokitzen ari dira entzumen eta ikusmen desgaitasuna dutenentzat. Mugikortasun urria dutenak espazio horretara seguruago sartu ahal izatea diseinatzen ari dira baita ere.

“Programazioa publiko guztietara egokitzen saiatu behar gara, denak integraturik egon daitezen”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

“Entzumen urria dutenentzat, gorrentzat eta adinekoentzat antzerkia eta zinema egokitzen saiatu gara. Saiatu gara erantzun on bat ematen, aztertzen zer den behar den eta txaplatarik ez jartzen”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

Pozgarria da udala pauso txikiak ematen egotea udalerriko kultura espazioen irisgarritasuna hobetearren. Hala eta guztiz ere, teknikariek ezinbestekotzat jotzen dute ahalegin horiek plangintza osatuago eta koherenteagoa batera bideratzea, laguntza teknikoak ezartzeko soilik erabiltzaileen eta familien erreklamazioen menpe egon beharrean. Estrategia orokor bat ezarri behar da, ekintza kultural bakoitza planifikatzen hasten direnetik irisgarritasun beharrak eta eskakizunak kontuan hartzen dituen.

Azken finean, beharrezkoa da irisgarritasun fisiko eta sentsoriala kontuan hartzea, eta erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna bateratzea. Lan hori egiteko adituen laguntza behar dela azpimarratu dute, aniztasun funtzionala duten erabiltzaileentzat neurri egokiak eta efizienteak hartzeko.

Hala, Udalaren Kultur Arloak nagusiki bi alderdi hauetan arreta jarri behar dela deritzo: (1) kultura programazioa publiko eta kolektibo guztietara egokitzea, aniztasun funtzionala dutenak barne; eta (2) azpiegiturak askotariko desgaitasunen beharretara egokitzea.

Aniztasun funtzionala dutenen eta horien senideen iritziak.

Irisgarritasuna

Udal langileek esan bezala, elkarrizketatutako aniztasun funtzionala dutenek eta beren familiek esan dute **irisgarritasun eta inklusio oztupoak daudela mugikortasun murriztua dutenentzat**, bai kultura zerbitzuetan, bai eta zinema eta antzokia dauden ekitaldien aretoan ere. Pertsona horientzako eserlekuak ez dira nahikoak. Beste alde batetik, eserlekuen kokapena eta banaketa ez da egokia, lehen edo azken ilaretan baitaude, eta hori deserosoa izan baitaiteke kultura esperientziaz gozatzeko. Gainera, egokitutako eserlekuak elkarren ondoan egotean, zenbaitetan ezin izaten dute desgaitasunik ez duten laguntzaileen ondoan ekitaldiaz disfrutatu.

“Nire semea gurpildun aulkian dago, eta beraientzako eserlekuetan esertzea atsegin du, ez bere gurpildun aulkian. Batzuetan, bere aita edo senideren bat eseri behar izan da gurpildun aulkian, ez baitzegoen beste irtenbiderik”. (aniztasun funtzionala pertsonen senideekin egindako eztabaida taldea)

Entzumen irisgarritasunak kezka larriak sortzen dizkiete baita ere entzumen zailtasunak dituztenei kultura jardueretan, adibidez, zinemara joatean. Filmetan azpigitulurik ez egotea oztopo handia da gorrek edo entzumen urria dutenek kultura eta zinema eskaintzaz guztiz gozatu ahal izateko.

Beste alde batetik, entzumen desgaitasuna dutenen kolektiboak azpimarratzen du kultura ekitaldi askotan irisgarritasuna falta dela, besteak beste hitzaldietan, zeinu hizkuntzako interprete oso gutxi daudelako, eta zenbaitetan bat ere ez.

5.3. LIBURUTEGIA

Aniztasun funtzionala dutenen eta horien senideen iritziak.

Liburutegiak ezinbesteko kultura espazioak dira, eta herritar guztientzako irisgarriak eta inklusiboak izan beharko lirateke, bakoitzaren gaitasunak edo laguntza beharrak gorabehera. Kasu honetan, erabiltzaileek esan zuten irisgarritasun kognitiboa bermatzen duten laguntzak falta direla. Hala, seinaleak piktogramen edo bestelako sistema ulerterrazen bitartez egokitzea neurri ezin hobea da bermatzeko erabiltzaile guztiak orientatu eta zailtasunik gabe liburutegira sartu ahal direla.

Horretaz gain, liburutegiko langileak aniztasun funtzionalaren eta arretaren inguruan prestatzea ezinbestekoa da bisitari guztiei tratu zuzena eta abegitsua emateko. Prestakuntza horretan, askotariko desgaitasunak dituztenen behar eta ezaugarriekiko sensibilizazioa, babesa eta laguntza errespetuz eta enpatiarekin emateko praktika hobeak landu beharko lirateke.

5.4. GIZARTE ZERBITZUAK

Udaleko langileen iritziak

Udaleko langileen arabera, Galdakaoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen oinarriko zerbitzuetan ez dago aniztasun funtzionala dutenentzako laguntzarik. Horri dagokionez, Arloko langileek esan dute zailtasunak izaten dituztela entzumen desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala dutenekin komunikatzeko, ez baitute prestakuntza espezifikorik jaso gai horretan, eta arreta ez baita pertsona horien behar posibleetara egokitzen, hala nola zeinu hizkuntzan komunikatzea, hizkera erabiltzailearen ulermen gaitasunera doitzea, testuak irakurterrazak izatea, etab. Komunikazioan zailtasun hori antzematen den arren —eta bereziki aniztasun funtzionala dutenen kolektibo jakin batzuekin—, Arloak ez du erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuak erabiltzeko oztopotzat jotzen.

Bestalde, ez da laguntzarik ematen ezta ere kolektibo horrentzat arlo horrek antolatzen dituen jardueretan. Plaza mugatuak dituzten jardueretan, parte-hartzaileak ezin dira eguneroko laguntzaileekin joan, eta profesionalen ustez, horrek mugatu egiten du autonomia osoa ez dutenek parte hartu ahal izatea.

Aniztasun funtzionala dutenen eta horien senideen iritziak.

Familiek esan zuten udalerrian eta udalerritik kanpo desgaitasunarekin lotuta dauden baliabideen inguruko informazioa falta dela. Horren barne egongo litzateke laguntza eta zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde eta antolakundeei eta laguntzei buruzko informazioa, eta eskuragarri dauden prestakuntza eta trebakuntzei buruzkoa. Informazio hori modu argi eta irisgarrian ematean, familiek desgaitasun dutenen eta beren familien bizi kalitatea hobetzeko jaso ditzaketen baliabideen eta laguntzen gida osoa izango lukete.

Gizarte Zerbitzuek emandako informazio hori oso lagungarria izango litzateke familiek informatutako erabakiak hartzeko eta desgaitasuna dutenen behar espezifikoak betetzeko baliabideak eskuratzeko. Are gehiago, desgaitasun diagnosis baieztatzean aholkularitza egokia ematea ezinbestekoa da une hain zail batean laguntza eta orientabide egokiak emateko.

“Diagnosis jasotzean oso galduta egon ohi zara, eta ez dakizu non hasi galderak egiten ere”. (aniztasun funtzionala duen pertsona baten senidearekin elkarrizketa)

Bestalde, elkarrizketatutako aniztasun funtzionala dutenek azpimarratu zuten langileek desgaitasunaren inguruko prestakuntza espezifikoak falta dutela, eta komunikazio beharretara ez egokitzeak, oztopoak sortzen dituela zerbitzua eskuratzeko. Horrek, orokorrean, aniztasun funtzionala dutenei eragiten die, baina baita ere bereziki entzumen desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala dutenei.

5.5. HERRIKO JAIK

Udaleko langileen iritziak

Udaleko langileek kultura ekitaldiei buruz emandako iritziak Galdakaoko jaietako ekitaldietan ere aplikatu daitezke, irisgarritasunean aurrerapausoak eman diren arren, oraindik ere egokiak ez diren doikuntzak baitaude.

2022ko azken jaietan, mugikortasun murriztua dutenek parte hartzeko neurriak ezarri ziren, besteak beste plataforma bat instalatu zuten, espazio eroso batean kontzertuetara joan eta horietaz gozatu ahal izateko. Gainera, jaien hasierako pregoian zeinu hizkuntzako interpretea egotea aurrerakuntza handia da gorren edo entzumen desgaitasuna dutenen irisgarritasunari dagokionez.

Udaleko langileek oso positibotzat jotzen dute Udalak Galdakaoko jaietan aniztasun funtzionala duten bizilagunak gizarteratzeko lan egiteko asmoa izatea. Hala eta guztiz ere, oso-osorik jorratu ez diren bestelako behar espezifikoak daude. Mugikortasun urria

dutenentzako plataformak zailtasun handiak ditu segurtasunean, zehazki, larrialdi kasuetan zona hori ebakutzeko. Hala, udal langileek uste dute garrantzitsua dela neurriak hartzea guztiz jakinez nola jardun behar den askotariko egoeretan.

“Ez da bakarrik plataforma bat jartzea, ondo pentsatu behar da. Ebakutu behar baldin bada, nola egingo da? Ez dira gauzak ondo egiten”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-B)

Beste alde batetik, uste dute jaietako programazioa ez dela ongi egokitzen aniztasun funtzionala dutenen beharretara. Horrek esan nahi du alderdi gakoak ez direla kontuan hartzen, besteak beste ordutegi irisgarriak, ekitaldi inklusibo motak, eduki egokiak eta zeinu hizkuntzako laguntzak eta bestelakoak ematea beharrezkoa denean. Benetako programazio inklusiboa lortzeko, ezinbestekoa da udalak eta jaien antolakuntzak aniztasun funtzionala dutenen askotariko beharrak eta trebetasunak kontuan hartzea.

“Programazioa egokitu beharko litzateke, adin guztietako pertsonentzako egokitzea bilatzen den bezala”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-B)

Jaiak egokitu eta inklusiboagoak izateko esfortzu batzuk egiten direla onartu arren, udal langileek diote oraindik lan handia dagoela egiteke. Laburbilduz, laguntzak berrikusi eta hobetu behar direla diote, eta inklusio forma berriak kontuan hartu behar direla jaien programazioan.

Aniztasun funtzionala dutenen eta horien senideen iritziak.

Galdakaoko jaien inguruan orokorrean uste dute irisgarritasuna eta parte-hartzea urriak direla aniztasun funtzionala dutenentzat. Aniztasun funtzionala duten herritarrek eta beren senideek esan zuten kolektiboak jaietan parte hartzen eta antolatzen duen partaidetza oso mugatua dela, eta askotan pasiboa.

Irisgarritasun doikuntza batzuk egin diren arren, beti ez dira egokiak izan. Adibidez, esan zuten kontzertuak gupildun aulkian ikusteko zabalguneeetan ikusmen txarra edo nulua dagoela. Gainera, irisgarritasun fisikoa mugatua izaten da bestelako jaietako ekitaldietan, adibidez desfileetan edo sarbide estuak eta askotariko oztopo arkitektonikoak dituzten lekuetan egiten diren gainerako jardueretan.

“Udalak agertokiak kudeatu beharko litzuzke, eta egiaztatu guretzako egokiak diren espazio irisgarriak egotea”. (aniztasun funtzionala duten pertsonekin egindako hiruko taldea)

Entzumen desgaitasuna dutenei dagokienez, entzumen mailan antolaketa ona duten ekitaldi batzuetan badaude laguntzak. Hala ere, iradoki dute udalak zeinu hizkuntzako interpreteak kudeatu ditzala jaietako asteko jardueretarako edo ohiko jaietako ekitaldietarako.

AEN duten umeekin dagoen arazoa ere aitortzen dute; ume horiek zenbait argi eta soinuekiko sentikorrek direnez, zenbait jolas parketan eta jardueretan parte hartzea oztopatzen du. Funtsezkoa da ezaugarri horiek kontuan hartzen dituzten eta herritar

guztiei herriko eta auzoetako jaietako programazioaz berdintasunean gozatzea ahalbidetzen dieten bestelako irtenbideak bilatzea.

Erabiltzaileek eta beraien familiek orokorrean sentitzen dute tailerrak, batzordeak eta jaietako kuadrillak planifikatzen direnean ez dutela parte hartzen aniztasun funtzionala dutenek. Genero ikuspegiaren integrazioarekin gertatu ez den bezala, ikuspegi inklusiboa ez da oso-osorik jorratu oraindik ere. Jaietako programazioak diseinatzean aniztasun funtzionala dutenek parterik ez hartzean eta udal arloan inklusioan adituak direnak faltatzean, egun ematen diren erantzunek ez dute oso-osorik inklusioa lortzen. Horrenbestez, beharrezkoa da alderdi hori gehiago lantzea, bermatzeko jaiak benetan inklusiboak eta irisgarriak direla herritar guztientzat.

5.6. HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK

Atal honetan bereziki haur, nerabe eta gazteei eragiten dieten udal zerbitzuak eta jarduerak aztertuko ditugu. Hau da, nagusiki ludotekak, topaguneak eta udalekuak, baina bestelako aisialdi jarduerak baita ere.

Galdakaoko udalaren *Ludoteka eta Topagune* zerbitzua osatzen dute 6 eta 12 urte arteko adingabeentzako 5 ludotekek eta 12 eta 16 urte arteko adingabeentzako 5 topagunek. Aurrekoak udalerriko auzoetan banatuta daude. Proiektu honetan parte hartzen dute baita ere askotariko desgaitasunak dituzten adingabeek.

Udaleko langileen iritziak.

Irisgarritasuna

Ludoteka eta Topaguneen irisgarritasunaren atalean azpimarratu da espazio berrienetan neurriak ezarri dituztela, eta irisgarritasun fisikoa ikaragarri hobetu dela. Hala eta guztiz ere, espazio zaharragoetan irisgarritasuna ez dago bermatuta, eta hori dela-eta ume eta nerabe guztiek ezin dituzte zerbitzu horiek erabili eta horietan parte hartzeko duten eskubidea egikaritu.

“Lokal batzuen irisgarritasuna ez da egokia, bereziki Plazakoetxekoa”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-B)

“Ate batzuk oso estuak dira eta gurpildun aulkia ez dira sartzen. Momentuz ez dugu eduki arazorik horrekin, baina gurpildun aulkia erabiltzen duen umeren bat etorriko balitz, bai”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E3-C)

Laguntzak

Ludoteka eta Topaguneetako irisgarritasun atalean aipatzekoa da langileak kezkatuta daudela espazio horietan esku-hartze inklusiboa eta kalitatezkoa egiteko zailtasunak baitituzte. Baliabide gutxi daude eta prestakuntza egokia falta da hezkuntza esku-

hartzerako langileentzat, eta horregatik, zaila da beharrezko laguntza ematea, bereziki laguntza gehiago behar duten erabiltzaileentzat.

Ludoteka eta Topaguneetako arduradunek esan zuten langileen eta boluntarioen mugak direla-eta, ezin dietela erantzun egokirik eman laguntza beharrak dituzten erabiltzaileei. Batzuek laguntza iraunkorra behar dutenez, gaur egun langileek duten gaitasuna gainditzen du horrek beharrezko laguntzak emateko, eta aldi berean, beste erabiltzaileei arreta emateko. Zenbaitetan erabaki zailak hartu behar izan dituzte eta laguntza behar duten adingabeak Ludotekara edo Topagunera joateari utzi behar izan diote, inguruabar horietan ezin baitute arreta egokirik eskaini.

“Ume horrek pertsona baten laguntza esplizitua behar du, laguntza edo akonpainamendua behar du etengabean. Gurasoek esan dute ez bada laguntzeko pertsona konkretu bat egongo, ez dela joango, bakarrik edo bere kabuz egoteko ez duelako umea ludotekara eramango”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E3-C)

Egoera hori ikusirik, Udalari jakinarazi zaio langile gehiago behar direla Ludoteka eta Topaguneetan parte hartzen duten eta aniztasun funtzionala dutenei arreta egokia emateko. Diagnosi hau egin den unean, eskaera horri emango zaion erantzuna ebaluatzen ari ziren. Udaleko Gazteria, Hezkuntza eta Euskara Arloek uste dute kudeaketa hori eta langileak gehitzea aniztasun funtzionala dutenekin lotuta gaur egun dauden erronka nagusiak direla.

“Udalean arazoa aurkeztu izan da, eta asaldatu egiten dira. Ez da nahikoa dauden begiraleak, laguntza gehiago behar da. Programazioak egokitu behar dira...” (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E3-B)

Udalak antolatzen dituen udalekuetan, familiek izena ematen dutenean adingabearen beharrak zeintzuk diren azaltzen dute, eta horien arabera, beharrezkoa balitz, langile egokiak kontratatzen dira. Hala eta guztiz ere, arloetako teknikariek diote laguntza beharrak dituztenentzat udalekuetan plazak espezifikoki erreserbatu beharko lirakeela. Plazak gordeta, bermatuko litzateke langile egokiak egongo lirakeela aniztasun funtzionala duten umeek arreta egokia jaso dezaten, eta parte-hartzaile guztientzako esperientzia inklusiboa eta atsegina ziurtatzeko.

“Gazteentzako udalekuetan haientzako plazak gorde beharko lirakeke. Ez dakit zer dion araudiak, baina orain ez da horrelakorik egiten”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E4)

Aniztasun funtzionala dutenen eta horien senideen iritziak.

Familiek zerbitzu horietako laguntzen inguruan duten iritzia guztiz negatiboa ez den arren, badakite langileek **prestakuntza** egokiagoa jaso behar dutela. Udalekuen kasuan, positiboa da laguntza beharrak baloratzea eta begirale espezifikoak kontratatzea. Hala eta guztiz ere, laguntzak ematen dituztenen jarraikortasun faltaren arazoa dago oraindik ere.

Familiek esaten dute baita ere adin biologikoaren eta heldutasun mailaren arteko ezberdintasuna kontuan hartu beharreko faktorea dela zerbitzuetara sartzeko adin egokiak zeintzuk diren erabakitzeke. Kasu batzuetan, **adin mugak** malguagoak izan beharko lirateke.

Jardueretan parte hartzeari dagokionez, iritziak askotarikoak dira. 20 urte baino gehiagoko seme-alabak dituzten familiek diote lehenengoek bakarrik desgaitasuna dutenentzako erakunde eta jardueretan parte hartzen dutela, eta leku horietan arreta egokia jasotzen dutela. Komunitatearen jardueretan integrazio hori lortzeko urteetan borrokatu behar izan direla diote, baina orain uste dute espazio eskusiboak daudela desgaitasuna dutenentzat, eta bertan, erosoago eta arreta egokia jasoz sentitzen direla.

“Familiek etengabe borrokatzen dugu horren aurka”. (aniztasun funtzionala duten pertsonen familiekin egindako eztabaida taldea)

Inklusioaren aldeko mugimenduekiko mesfidantza eta neke gehiago erakusten dute adin nagusiagoa duten seme-alabak dituzten familiek, denbora luzeagoan sufritu baitituzte aniztasun funtzionala dutenen kolektiboak dituen oztopo eta zailtasunak. Familia horietako batzuk urteetan zehar borrokatu dira oztopo horiek gainditzeko, eta baliteke sentitzea inklusioa lortzeko egindako lana beti ez dela nahikoa edo eraginkorra izan.

“Borrokatzeaz nekatuta nago. Eta berarekin norbait egon behar da. Asko borrokatu naiz urte luzez. Nire eskaera da nire semeak aisialdia beste lagunekin egitea. 25 urte ditu. Atsedena behar dugu, eta beste behar batzuk ditugu. Urte luzez lan handia egin dugu. Eta nire semeak ez du talderik ezta ezer, beti dago gurekin. Taldeak egiteko eskatzen dut. Arnasa hartzeko taldeak sortzeko”. (aniztasun funtzionala duten pertsonen familiekin egindako eztabaida taldea)

Hala ere, 20 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiek esaten dute beharrezkoa dela azken horiek udalerriko jarduera guztietan aukera berdintasunean parte hartzea. Hori lortzeko, laguntzak kudeatzea eta ikusezinak diren herritar horiei guztiz parte hartzea ahalbidetzen dieten baliabide ekonomikoak esleitzea eskatzen dute. Familia batzuek uste dute ez dutela nahi bakar-bakarrik desgaitasuna dutenek osatutako talde bereziak sortzea, zerbitzu horiek ematen dituzten erakunde espezializatuak baitaude. Diote pertsona horiek beste guztien eskubide berberak dituztela, eta jardueretan baldintza berdintasunean parte hartzeko aukera izan behar dutela.

“Oso tristea da zure semea bakarrik ikustea, bere lagunak helduak dira orain, eta bakarrik geratu da”. (aniztasun funtzionala duten pertsonen familiekin egindako eztabaida taldea)

Ludotekan aniztasun funtzionala duten haurrentzako **laguntza** espezifikoak ematen diren arren, zenbaitetan, laguntza horiek ez dira profesionalak desgaitasunaren arloan. Topaguneetan (nerabeentzako espazioak), uste dute zailtasunak daudela desgaitasuna duten gazteek parte hartu ahal izateko, ez baitago laguntza egokirik. Laguntza batzuk eman dituzten arren, beraien ustez oraindik ez da lortu espazio inklusibo bat, eta lan mardula dago egiteke. Zenbait kasutan, familiek seme-alabei laguntzen diete espazio horietan gehiago parte hartu dezaten.

Familiek esan zuten Galdakaoko Ludoteka edo Topagune batzuetan azken hilabeteetan laguntzen hasi direla, baina bakarrik zenbait espaziotan, eta batzuetan beren etxe edo auzoetatik urrun daude. Uste dute egokia izango litzatekeela laguntzaileak egotea espazio bakoitzean desgaitasuna duten ume eta nerabeek arreta indibidualizatuagoa jasotzeko, beraien iritziz, espazio horietako hezitzaileek erantzukizun asko baitituzte, eta zaila baita arreta espezializatuagoa ematea. Hala eta guztiz ere, diote positiboa dela familia batzuek zerbitzuetako langileen aldetik inplikazio ona esperimentatu izana, eta ludotekan laguntzaileak izatearen aukera. Udalak antolatutako udalekuen kasuan, diote batzuetan ez dagoela langile kualifikaturik, eta zenbait familiek erakunde espezializatueta jotzen dutela laguntza eske, besteak beste Apnabi edo Gorabidera.

Beraien ustez, nerabezaroaurrean eta nerabezaroan inklusioa zaila izan daiteke prozesuan laguntzen duten langile kualifikaturik ez badago, bereziki, desgaitasun kognitiboa dutenentzat. Gainera, beste erakundeetako udalekuen gastuak kezkatzen ditu baita ere, eta iradoki dute udalak arnagune ekonomikoagoak eskaini, eta parte-hartzeko laguntza gehiago eman ahalko litzatekeela. Nabarmendu dute baita ere, desgaitasuna dutenen beharrak beste adin tarte batzuetan ere badaudela, eta zerbitzuak planifikatu behar direla. Familiek egokitzen jotzen dute “arnaguneak” eskaintzea, eta horietan, komunitateko aisialdi esparruan, beren seme-alabekin lan egin ahal izatea.

“Bakarrik herriko udalekuetan parte hartzen du. Beraiekin egoten den begiraleak urtean zehar autismoa dutenekin lan egiten duenez, lasai nago”. (aniztasun funtzionala duen pertsona baten senidearekin elkarrizketa)

“Udalak inklusioaren alde egiten badu, baliabideak eman behar dira”. (aniztasun funtzionala duten pertsonekin egindako hiruko taldea)

Udalak eta udalerriko gizarte erakundeek antolatutako bestelako **kultura eta aisialdi jarduerak** ere aipatzen dituzte, besteak beste kultura jarduerak eta Olentzeroren ekitaldia. Jarduera horietan, diote erakunde antolatzaileak sentsibilizatuta daudela inklusiboak izan daitezen, baina beharrezkotzat jotzen dute oinarriak eta baterako protokolo bat ezartzea guztien parte-hartzea bermatzeko.

Protokolo inklusibo batekin bermatuko litzateke udalerriko jarduera eta ekitaldi guztiak herritar guztiek disfrutatu eta parte hartzeko moduan diseinatuta eta egokituta egotea. Horren barne egongo litzateke irisgarritasun fisiko, sensorial eta kognitiboko alderdiak kontuan hartzea, eta pertsona guztiak gizarteratuta eta egoki artatuta sentitu daitezen laguntzak eta baliabideak ematea.

Inklusioaren aldeko neurriak ezartzen direnean, besteak beste egokitzapen txikiak, balorazioak oso positiboak izaten dira. Hala eta guztiz ere, inklusioaren aldeko mugimenduek sentimendu kontrajarriak sortzen dituzten desgaitasuna dutenen eta beren familien artean. Alde batetik, komunitateko aisialdi eskaintzan aniztasun funtzionala dutenek parte hartzea errazteko neurri guztiak babesten dira. Beste alde batetik, mesfidantzaz eta nekez ikusten dute, urteetan zehar hainbat oztopo izan

baitituzte. Maiz inklusioa ez da lortu daitekeen helburutzat jotzen, eta nahiago dute beren seme-alabak eroso sentitzea desgaitasuna duten beste batzuekin.

5.7. MUSIKA ESKOLA

Udaleko langileen iritziak

Irisgarritasuna

Orokorrean, Musika Eskola irisgarria da mugikortasun urria dutenentzat. Hala eta guztiz ere, auditoriuma zerbitzu horretan irisgarritasun txarrena duen lekuetako bat da. Familiak babestuego sentitu daitezten, oztopo arkitektonikoak kendu edo gutxienez murriztu beharko dira, horrela, erabiltzaile guztien irisgarritasuna eta erosotasuna hobetzeko, eta bereziki, behar bereziak dituztenenak.

“Nik gehiago behar dut nire familia babestua sentitzea, oztopo arkitektonikorik ez egotea, edo gutxienez, gutxiago izatea”. (Galdakaoko Udaleko teknikari eta profesionalekin egindako elkarrizketa, E5)

Laguntzak

Galdakaoko Musika Eskolak desgaitasun intelektuala eta desgaitasun anitza dutenei zuzendutako zerbitzu bat eskaintzen du, eta beraien beharretara eta ikaskuntza erritmoetara egokitzen diren eskola espezifikoak ditu. Zerbitzu hori lehenengoa da espainiar estatuan, eta 18 urte daramatza udalerrian martxan. Ez da beharrezkoa aurretiko diagnosis izatea eskola horietara joateko, banakako ebaluazioa egiten baita bakoitzaren beharrak zehaztu, eta erabakitzeke ea taldekako eskoletan egon daitezkeen edo banakako eskolak behar dituzten.

Desgaitasuna dutenen behar espezifikoak direla-eta beraientzako talde eksklusiboetan lan egiten den arren, egia da desgaitasunaren arretan aurreratuen dagoen udal zerbitzua dela, eskolako langileen konpromisoari eta dedikazioari esker. Inklusioaren “oasia” bezalakoa da, eta gehiago ezagutarazi behar da.

Gainera, Musika Eskolak beren jardueretan desgaitasunik ez dutenek parte hartzea sustatzen du, eta horrek, esperientzia aberasteaz gain, inklusioaren inguruko ikuspegia zabaltzea errazten du. Ezberdintasunak lantzen dituzten eta ikasleak desgaitasunaren inguruan sentsibilizatzen dituzten ekimenak egiten dira.

Azkenik, bestelako udal arloekin egiten den koordinazio lana nabarmentzen da, besteak beste Euskara eta Kultura Arloekin. Diziplina arteko lankidetzak da, eta musika eta kultura are gehiago integratzen dira inklusioaren arloan.

Aniztasun funtzionala dutenen eta horien senideen iritziak.

Galdakaoko Musika Eskolarekiko duten esperientzia positiboa da, eta ikastetxeko langileen inplikazioa eta dedikazioa goraipatzen dute.

Hala eta guztiz ere, zenbait familiek esan zuten beharbada proiektua Galdakaoko komunitatean isolatua den zerbait bezala ikusten dela, eskolatik kanpo jarduera gutxi egiten baitira, eta horrek zaildu egiten baitu egindako lana ezagutaraztea. Familiek proiektua ezagutarazteko eta komunitatean musika inklusioa sustatzeko herriko ekitaldietan eta jaietan ikasleek parte hartzeko interesa dute.

Beste alde batetik, Musika Eskolako zenbait espaziotan zailtasunak daude irisgarritasun fisikoari dagokionez, hala nola auditoriumean.

5.8. UDALAREN ESTRATEGIA OROKORRA, ETA GALDAKAOKO INKLUSIOAREKIKO IRITZIAK

Udaleko langileen iritziak

Kezkagarria da aniztasun funtzionala dutenek gehiago parte ez hartzea udalaren zerbitzu eta jardueretan **laguntza edo egokitzapen** faltak daudelako. Udaleko langileek aitortzen dute zerbitzu horietako askotan ez daudela baldintza egokiak laguntza behar dutenek guztiz parte hartu ahal izateko.

“Egiten duguna ez dagoenez kolektibo horretarako prest, normalean ez dira guregana etortzen”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

“Parte-hartzea ez da oso handia. Agian informazioa ez da heltzen, pentsatzen dute ez dutela izango babesik... Uste dut orain beste sasoi batean gaudela, familiek ikusten dutela beraien umeei eskubide osoa dutela joateko baita ere. Eta hala da”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E4)

Egokitzapen eta laguntza faltak aniztasun funtzionala dutenak komunitateko bizitzan gizarteratzea zailtzen duten oztopo handiak sor ditzake. Ezinbestekoa da udal zerbitzuak egokitzapen eta laguntza egokiak ematera bideratzea, horrela bermatzeko pertsona guztiek, beren gaitasunak gorabehera, baldintza berdintasunean parte hartzeko aukera dutela.

Inklusio gehiago lortzeko, beharrezkoa da udalak, udal zerbitzuetako arduradunek eta aniztasun funtzionala dutenek eta beren familiek lankidetzan jardutea, behar eta eskaera espezifikoak identifikatzeko. Gainera, komunitateko alderdi guztietan irisgarritasuna eta inklusioa sustatzen duten politikak eta ekintzak ezarri behar dira, aisialdi, kultura eta antzeko jarduerak barne hartuz.

Ezinbestekoa da **sentsibilizazio eta kontzientziario** handiagoa sustatzea komunitatean aniztasun funtzionala dutenak gizarteratzearen garrantziaz. Gainera, beharrezko baliabideak esleitu behar dira bermatzeko udal zerbitzuak eta jarduerak benetan irisgarriak eta egokiak direla guztientzat.

Azken finean, udalaren eta komunitate osoaren erantzukizuna da elkarrekin lan egitea oztopoak gainditzearen eta gizarte inklusiboa sustatzea, non herritar denek udalerrriak eskaintzen dituen zerbitzu eta jardueretan parte hartu dezaketen eta horietaz disfrutatu dezaten.

Udal zerbitzuak eta jarduerak **hedatu eta komunikatzeko** zailtasunak identifikatzea ezinbesteko alderdia da bermatzeko herritar guztiek parte hartzen dutela, aniztasun funtzionala dutenak barne. Kezkagarria da kolektibo horri zuzendutako hedapen espezifikorik ez egitea, horrek oztopo gehigarria sortu baitezake komunitatean guztiz parte hartu ahal izateko.

Behar espezifikoak dituztenentzako jarduera egokiei buruzko informazio argirik ez badago, ziurgabetasuna eta gogogabetasuna sentitu dezakete, eta hala, aniztasun funtzionala duten askok ez lukete parte hartuko udalaren zerbitzu eta jardueretan.

Gabezia hori gainditzeko, ezinbestekoa da udalak bere komunikazio eta hedapen estrategia hobetzea. Horrek esan nahi du aniztasun funtzionala dutenen informazio behar espezifikoak identifikatu behar direla, eta ziurtatu behar dela informazio hori eskuragarri dagoela formatu eskuragarri eta ulergarrietan.

Gainera, komunikazio bide eraginkorrak ezarri behar dira kolektibo horretara eta familietara iristeko. Horren barne egon daiteke aniztasun funtzionala dutenekin lan egiten duten tokiko antolakunde eta erakundeekin lan egitea eta komunikabide eskuragarriak erabiltzea, besteak beste hizkera argia, irudiak eta piktogramak dituzten eskuliburuak eta kartelak.

Azken finean, udal zerbitzuen eta jardueren komunikazioa eta hedapena hobetzea, eta aniztasun funtzionala dutenen beharrenganako ikuspegi espezifikoarekin jokatzeko ezinbestekoa da inklusioa sustatzeko eta bermatzeko herritar guztiek komunitateko aukerez guztiz gozatu ahal izatea.

“Hedapen lan espezifikorik ez da egiten desgaitasuna dutenenganako. Jarduera espezifikoetako eskuorrietan ez da aipatzen zeintzuk dauden egokituta”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E1)

“Jaietan badago leku erreserbatu bat mugikortasun urria duten pertsonen zuzendua eta jai programan adierazten da sinbolo baten bidez”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-B)

“Orokorrean oso zaila da. Sare sozialak gazteentzako, kartelak nagusientzako, ez dela ikusten, ez dela jartzen... Ez da heltzen orokorrean komunikazioa”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E1)

Udal jarduera eta zerbitzuetako arduradunei eta teknikariei zuzendutako **prestakuntza espezifikoaren** garrantzia funtsezkoa da bermatzeko aniztasun funtzionala dutenei arreta egokia eta kalitatezkoa ematen zaiela. Gai horren inguruko prestakuntza falta oztopo handia izan liteke inklusiorako eta kolektibo hori egoki tratatzeko.

Prestakuntzari esker, langileek askotariko desgaitasunak, beharrezko laguntzak eta bizilagun horiek udal zerbitzu eta jardueretan parte hartzea errazteko esku-hartze egokiak hobeto ezagutuko dituzte.

Prestakuntza lagungarria izan daiteke baita ere erakundea sentsibilizatzeko inklusioaren garrantziaz eta aniztasuna errespetatu beharraz, horrela, erakunde kultura inklusiboa sustatuz udalean eta udaleko askotariko zerbitzuetan.

“Prestakuntza oso gutxi ematen da orokorrean. Ez da erakundetik bultzatzen, batzuetan egin izan da pertsonalki eskatu delako, baina desgaitasunaren inguruko gai honetan ez”.
(Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E1)

Azpimarratzekoa da udal espazioetan **behar berezirik ez dutenek aniztasun funtzionala dutenekiko duten jokaera positiboa**, eta esan dute Galdakaon hobetu egin dela inklusioarekiko eta onarpenarekiko kontzientzia. Aldaketa hori sentsibilizazio eta hezkuntza lanarengatik gertatu da, eta azpimarratzen da garrantzitsua dela jokaera positiboak bultzatzen jarraitzea eta behar bereziak dituztenen eta ez dituztenen arteko elkarbizitza normalizatzea. Aipatzen da jokaera horiekin erraztu egiten dela udal jarduera eta zerbitzuetan guztiz parte hartu ahal izatea, eta eskatzen da gizarteko maila guztietan inklusioa eta sentsibilizazioa sustatzen jarraitzea. Aniztasun funtzionala hobeto onartzea aurrerapauso handia da gizarte inklusiboa eta diskriminaziorik gabekoa sortzeko bidean.

“Gero eta kontzientzia gehiago dago. Onartzen da, gero eta gehiago saiatzen da gizartea hori normaltasunez ikusten. Beraien parean egoteko ahaleginak nik ere ikusi ditut”.
(Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E4)

Langileek diote orain arte ezarritako inklusio neurriak puntualak eta isolatuak izan direla, hau da, “txaplatak”. Azpimarratzen dute beharrezkoa dela **udalean baterako estrategia bat sortzea, finkatzeko zein den udalak hartu nahi duen norabidea udalerrian eta udal zerbitzuetan aniztasun funtzionala duten herritarrek gizarteratzeko**. Estrategia hori ongi egituraturutako eta oinarritutako gida bat da, eta erabaki koherenteagoak eta efektiboagoak hartu ahal izatea ahalbidetuko du.

“Nik uste aditu batekin ikertu beharko litzatekeela eta irizpide batzuk finkatu, politikoki onartu irizpide horiek eta aurrera eraman, eta horretarako baliabideak jarri”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

“Ez badago estrategia bat, auzia eta zerbitzuetan laguntzak jartzea ahaztu egiten da eta ez zaio garrantzirik ematen”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

Inklusioaren aldeko iritzi ofizialen eta ondoren, helburu hori praktikan jartzeko erabiltzen diren baliabideen artean ezberdintasuna dagoela uste dute.

“Teorikoki oso positiboa eta aldekoa da, hitzetan bai. Baina beste gauza bat da zer nolako politikak egiten diren hori gauzatzeko, dirua jartzean, ez. Ez dago apustu serio bat gauzak aldatzeko. Hirigintzan bai jartzen da dirua, baina berdintasunean eta inklusioan oso gutxi. Legealdietan ez dut nabaritu apustu erreal bat dagoenik, egiten dira gauza batzuk, baina

sakonean pausu hori ematea falta da". (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E1)

Udal agenteek diote inklusioa sustatzeko behar handienetakoak baliabide materialak eta gaiaren inguruko prestakuntza direla. Garrantzitsutzat jotzen dute zerbitzuak egokitzea eta berriak guztiz inklusiboki diseinatzea. Beharrezko neurrien artean, azpimarratzekoak dira oztopo arkitektonikoak kentzea edo gutxitzea eta laguntza pertsonalak ematea laguntza osagarria behar dutenei. Ekintza horiek ezinbestekoak dira komunitate inklusiboagoa eta guztientzako irisgarria dena lortzeko.

"Alde batetik, martxan ditugun proiektuetan zailtasunak nola konpondu ikusi beharko da eta, bestetik, hemendik aurrera egindako ekintzetan hori nola jasoko den ikusi". (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

Azkenik, udal agenteek ezberdintasun handiak ikusten dituzte **aniztasun funtzionala duten kolektiboen** laguntza beharren artean, bai desgaitasun edo egoera motaren arabera, edo menpekotasun edo autonomia mailaren arabera ere. Desgaitasun intelektuala dutenek laguntza gehiago behar izaten dute udal zerbitzuetan parte hartzeko desgaitasun fisikoak dituztenekin alderatuta. Horrenbestez, desgaitasun mota bakoitzaren behar espezifikoak ulertzea eta prestakuntza egokia jasotzea garrantzitsua da.

"Aniztasun funtzional fisikoa duen norbaitekin hitz egiteko aukera izango dut, ulertuko nau. Baina desgaitasun intelektuala duen batekin, ez. Gure aurreiritziengatik. Beste ikuspegi batetik begiratzeko gai izan behar dugu: hitz egin gabe komunikatu naiteke". (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E7)

Gainera, inklusio zerbitzuetan arreta **personalizatzearen** beharra azpimarratzen da, hau da, esku-hartzeak eta laguntzak pertsona bakoitzaren behar indibidualetara egokitzea. Horrek esan nahi du norbanako bakoitzaren berezitasunak ikusi eta ulertu behar direla, laguntza efektiboago eta egokiagoa emateko.

Garrantzitsua da inklusioa ikuspegi indibidualizatu batetik eta askotariko desgaitasunen inguruko ezagutza espezifikoekin jorratzea, modu horretan bermatzeko herritar guztiek parte-hartze aktiboa eta osoa dutela udal zerbitzuetan, eta orokorrean, komunitatean.

"Nire ustez, pertsonen arabera da, ez kolektiboen arabera. Faktore asko gurutzatzen dira, eta bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak ezberdinak dira". (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E6)

"Sindrome eta kondizio bakoitzaren egoera ezagutu behar da, baina kontuan hartu ere bai pertsona bakoitzak bere ezaugarri eta izaera propioa dituela. Gauza bat da desgaitasuna ezagutzea eta beste bat umea edo pertsona ezagutzea. Nik uste merezi duela beste lanketa bat egitea. Zenbat eta hobeto ezagutu, are hobetoago izango da zerbitzua". (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

Beste erakundeen kasuan —besteak beste Aldundia eta Eusko Jaurlaritza—, beharrezkotzat jotzen dute horietan ere inklusio estrategia bat egotea eta udalerriek gida

moduan erabiltzea, eta horrela, denek ildo berean lan egitea. Hala eta guztiz ere, udal erakundeek babesik ez ematea ez da aitzakia izan behar arazo hori ez kudeatzeko.

Autonomia erkidegoan estrategia bat egotea onuragarria izango litzatekeen arren, udal agenteek aitortu zuten udalerrri bakoitzaren egoera eta beharrak bereziak direla, eta horrenbestez, garrantzitsua dela baita ere tokiko gobernuek beren erantzukizuna hartzea inklusioa sustatzen eta arazoa modu aktiboan eta beren komunitateetan efektiboki jorratzen.

Laburbilduz, beharrezkoa da goragoko mailako inklusio estrategia bat sortzea, udalerrri guztiak gidatuko dituen, baina azpimarratzen da baita ere garrantzitsua dela tokiko gobernuek oso-osorik goragoko erakunde horien menpe ez egotea, eta beren udalerrietako kudeaketan duten zeregina hartzea.

“Nik pentsatzen dut arazoa gizartean dagoela. Gure gaintik daudenak, EJ-k, sare moduko bat egin beharko luke: prestakuntzetarako, instalazioak hobetzeko dirulaguntzetarako, esperientziak partekatzeko. Gehienentzako hain ezezaguna eta anitza den errealitate hau ezagutzen lagunduko duen leku bat, udalerrri bakoitza bere kabuz ez joateko. Hobeto bideratuta egon behar gara. Eta hortik aurrera pausuak emateko pizgarriak eman. Galduta eta bakarrik sentitzen zara”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E1)

“Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak izan behar dute estrategia bat eta gero tokira eraman. Hala ere, ezin gara egon haien dirulaguntzen zain. Baina begirada hori eduki beharko lukete”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

Etorkizun hurbilera begira, udal agenteek uste dute Galdakaoko Udalaren jarrera positiboa dela udalerrian aniztasun funtzionala dutenen inklusioaren alde lan egiteko. Hala, nabarmentzen da garrantzitsua dela baliabide materialak bideratzea helburu hori egoki betetzeko.

Ikuspegi positiboa dago Galdakaoko Udalak udalerriko aniztasun funtzionala duten herritarren inklusioaren alde lan egiteko duen konpromisoari dagokionez. Azpimarratzen dute garrantzitsua dela baliabide material egokiak bideratzea helburu hori eraginkor betetzeko.

“Hobetuko da, orain ez delako ezer egiten eta, beraz, hobera joango gara”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-A)

Ikuspegi baikor horrek esan nahi du Udala neurri zehatzak hartzeko eta Galdakaoko komunitateko bizitzaren arlo guztietan inklusioa sustatzen duten politikak eta programak ezartzeko baliabideak esleitzeko prest dagoela.

Baliabide material egokiak esleitzea ezinbestekoa da martxan dauden zerbitzuak egokitzeko eta berriak modu inklusiboan diseinatzeko. Horri esker, oztopoak murriztuko dira, irisgarritasuna hobetuko da eta aniztasun funtzionala duten guztiek komunitatean guztiz parte hartzeko lagunduko da.

“Hobetzeko prest gaude, baina baliabideak behar dira”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-B)

“Erronka nagusiak dira espazioak egokitzea, neurri bereziak hartzea, giza baliabideak sendotzea, profil profesionala eskatzea, parte-hartzea bultzatzea... Egoerak eraldaketa bat behar du. Honen aurrean lan handia egin beharko dugu”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E2-B)

“Kontua da parte hartu dezatela nahi izatea edo behar izatea, eta laguntza egokiekin. Gauzak nola egiten diren aztertu beharra dago baita ere, beraientzat ere aberasgarria izatea, eta ez egitea argazkia ateratzeko edo egin behar delako, ongi egitea, alegia”. (Galdakaoko Udaleko teknikariek eta langileekin egindako elkarrizketak, E6)

Udal agenteek baikor ikusten dute udalaren inklusioarekiko jokaera, eta ezinbestekotzat jotzen dute baliabide material eta giza baliabide egokiak bideratzea norabide horretan aurrera egiteko.

Aniztasun funtzionala dutenen eta horien senideen iritziak.

Irisingarritasuna

Aurreko ataletan aipatutako jarduera eta zerbitzuez gain, udalerrian zailtasunak daude arlo orokorragoetan ere. Besteak beste, **haurren parke** batzuk egoera txarrean daude, egiturak janda edo hondatuta dituzte, eta hori arriskutsua da segurtasunerako, eta umeek aisialdi eremuetan parte hartzea mugatzen du.

Gainera, ikusi da parke bat ere ez dagoela zuzen egokituta, eta hori arazo handia da desgaitasuna duten umeentzat. Egokitzapen falta horrek umeek jolas espazio horietan guztiz disfrutatzea oztopatzen du.

Horregatik, azpimarratzen dute beharrezkoa dela haurren parkeetako irisingarritasuna eta egokitzapena hobetzea, ziurtatzeko espazio inklusiboak eta irisingarriak direla ume guztientzat. Hobekuntza horiekin, aniztasun funtzionala dutenei mesede egiteaz gain, udalerriko gainerako umeen jolas esperientzia aberastuko litzateke baita ere.

Laguntzak

Galdakaoko Udalaren inklusioko estrategia orokorrari dagokionez, agerikoa da aniztasun funtzionala dutenen laguntza beharrak askotarikoak eta espezifikoak direla bakoitzaren desgaitasun motaren edo egoeraren arabera. Familiek eta aniztasun funtzionala dutenek diote hainbat arlotan, **laguntzek** irisingarritasuna eta inklusioa hobetu dezaketela udal eta komunitateko espazioetan.

Horien artean daude, besteak beste piktogramak jartzea zenbait espaziotan komunikazioa eta ulermena errazteko, zerbitzu batzuen irisingarritasun fisikoa hobetzea, eta entzumen desgaitasuna dutenentzako programatutako jardueretan zeinu hizkuntza eskaintzea.

Inklusio efektiboa lortzeko, ezinbestekoa da aniztasun funtzionala dutenen askotariko beharrak kontuan hartzea eta baliabide tekniko eta profesional egokiak ematea komunitatean guztiz parte hartzen dutela bermatzeko.

Gainera, garrantzitsua da laguntza **pertsonalak** desgaitasunean **prestakuntza espezifiko**a jaso dutenek ematea. Horri esker, egoki beteko dira bakoitzaren beharrak eta aniztasun funtzionala duen herritar bakoitzak, kalitatezko arreta espezializatua jasotzen duela bermatuko da.

“Nire semea batzuetan ondo egoten da, eta bat-batean, zenbait estimulurengatik, bere burua zauritzen hasten da. Sufritzen dituen krisietan laguntzeko prestatuta dagoen norbait behar dugu ” (aniztasun funtzionala duten pertsonen senideekin egindako eztabaida taldea)

“Familiek ez dugu zerbitzuetara jotzen, ez baitago desgaitasuna duten umeei arreta emateko laguntza profesionalik” (aniztasun funtzionala duen pertsona baten senidearekin elkarrizketa)

Laguntzaileen profesionaltasunari buruzko eztabaidak agerian uzten du garrantzitsua dela aniztasun funtzionala dutenentzako arreta eta laguntza egokia bermatzea. Familia batzuen ustez, boluntarioak aukera baliozkoa izan daitezke, betiere prestakuntza egokia badute eta etengabe gainbegiratzen badituzte desgaitasunaren arloko profesionalak.

Beste alde batetik, beste familia batzuk kezkatuta daude boluntarioen laguntzaren fidagarritasuna eta jarraikortasuna dela-eta, beren eginkizuna edozein unetan utzi baitezakete. Gainera, baliteke (edo ez) trebakuntza eta ezagutzak izatea laguntza prozesuan sor litezkeen zenbait jokaerari edo egoera espezifikorik erantzuteko.

Kalitatezko arreta bermatzeko, garrantzitsua da prestakuntza egokia jaso duten eta desgaitasunaren arloan gaituta dauden profesionalak egotea. Profesional horien ikuspegia espezializatuagoa izan liteke eta prestatuago egon litezke kasu bakoitzaren beharrei eta erronkei erantzuteko. Bakoitzaren laguntzak berrikusten eta antolatzen dituen koordinatzailea edo kudeatzailea egotearen beharra nabarmentzen da baita ere, hala, arreta osoa eta egokia ziurtatuz.

Azkenik, helburua da ahalik eta laguntzarik onena ematea aniztasun funtzionala dutenei, eta horretarako, ikuspegi orekatua eta ondo planifikatua behar da, boluntarioen konpromisoa eta profesionaltasun eta prestakuntza espezifiko konbinatzen dituen egoki erantzuteko bakoitzaren behar indibidualei.

Komunikazioa

Lantaldeetan, askotariko ikuspegiak daude Udalak aniztasun funtzionala dutenekin duen komunikazioari buruz. Familia batzuek uste dute informazioa badagoela karteletan, udal aldizkarietan, totemetan eta abarrear, baina sentitzen dute herritarrek, orokorrean, ez dietela arretarik jartzen edo ez dutela nahi informatu.

Beste alde batetik, beste familia eta desgaitasuna duten batzuek azaldu zuten Udalarekiko komunikazioa orokorrean eskasa dela. Azpimarratu zuten sare sozialetan lan handia egin beharra dagoela, eta informazioa ez dela irisgarria gorrentzat edo hizkuntza sinpleago eta ulerterrazagoan. Esan zuten baita ere, udalaren web orrira sartzea zaila dela, eta kexak egiteko prozedura konplexua dela baita ere.

Galdetzen dute balitekela jarduera gutxi egotea, edo ea aniztasun funtzionala dutenak udal eskaintzatik baztertuta dauden. Udalarekin komunikazio errazagoa eta irisgarriagoa lortzea proposatzen da, azkarrago lantzeko desgaitasunarekin lotutako arazoak.

ESAN zerbitzuko arreta eskasa dela diote. Pantailek komunikazioa eta entzumena zailtzen dute, eta hori oztopoa da zerbitzua behar dutenentzat. Oztopo horiek kentzea iradoki zuten, komunikazio efektiboagoa erraztearren.

6. ONDORIOAK

Desgaitasun balorazioa dutenen datuak

- Galdakaoko biztanleen % 5,9k aitortutako desgaitasuna du. Hau da, 1.725 bizilagunek.
- 10etik 6 gizonak dira. Aurreko hori adin tarte guztietan gertatzen da.
- Adinak aurrera egin ahala, aitortutako desgaitasuna duten herritar gehiago daude. Hala, 0-6 urte bitartekoen artean % 0,6k du desgaitasuna aitortuta, eta 65 urte baino gehiagokoen artean % 10,7 dira. Horrenbestez, 65 urte baino gehiagokoak kuantitatiboki asko dira desgaitasun balorazioa duten guztiekiko, zehazki % 42,8 (eta aldi berean, biztanleria orokorraren % 23,5 dira).
- Desgaitasun mota ohikoena fisikoa (% 53,2) da. Ondoren, desgaitasun intelektuala (% 17,5).
- Adinak aurrera egin ahala, desgaitasun intelektualaren pisu erlatiboa gutxitzen da, eta desgaitasun fisikoarena handitzen da.

Aniztasun funtzionala dutenen parte-hartzeari buruzko inkestaren analisisia.

Laguntza beharrak eta desgaitasun mota:

- 10 pertsonatik ia 9k esan zuten beraien desgaitasuna dela-eta, egunerokotasunerako nolabaiteko laguntzak edo egokitzapenak behar dituztela.
- 10etik 1ek esan zuen ofizialki aitortu gabeko desgaitasunen bat zutela (desgaitasun balorazioa). Horrenbestez, baliteke balorazio hori ez izan arren, laguntza beharrak egotea.
- 10etik 6k diote desgaitasun intelektuala edo garapeneko dutela. Beraz, desgaitasun mota horrek laginean gehiegizko errepresentazioa du. Hainbat arrazoi egon daitezke horretarako, nagusiki desgaitasuna duten adingabeen familiek azterlanean parte hartzeko gogo gehiago izan dutela.
- Galdetutako 10 pertsonatik 6 laguntza elkarte bateko kideak dira. Elkarte sareak laguntza handia ematen die beraiei eta haien familiei.
- Aniztasun funtzionala dutenen 10etik 6k beren aisialdia ez dute partekatzen desgaitasunik ez dutenekin, bai jarduerarik egiten ez dutelako (edo familiarekin egiten dituztelako), edo jarduerak egiten dituztenean, bakarrik aniztasun funtzionala dutenekin egoten direlako.

Partaidetza eta laguntza beharrak:

- Galdetutako 10 pertsonatik 7k esan zuten udal jardueretan edo zerbitzuetan parte hartzeko nolabaiteko egokitzapena edo laguntza behar dutela (espazioak aldatzea, laguntza pertsonalak, teknikoak, etab). Gehien eskatzen den laguntza

da jardueran laguntzeko norbait izatea. Zenbait kasutan (% 18,5entzat) laguntza puntuala izaten da, eta beste batzuetan (% 58,5entzat) iraunkorra.

- Behar den laguntza norbaitek jardueran laguntzea denean, bakarrik 10 kasutik 2tan laguntzen du zerbitzuak edo jarduerak berak. Gainerakoetan senideak, elkartea edo laguntzaile pertsonalak izaten dira.
- Udal zerbitzu ezagunena eta parte-hartzaile gehien dituen Urreta eta Unkinako kiroldegietakoa da, erabilera librekoa. Ondoren, herriko jaiak eta udal liburutegiak daude.
- Udalak antolatzen dituen antzerkiak, kontzertuak eta bestelako kultura ekitaldiak galdetutakoak gutxien joaten diren zerbitzuetako batzuk dira.
- Udalak antolatutako ludoteketan, topaguneetan eta udalekuetan, zerbitzu horietan parte hartzeko adina duten galdetutakoen parte-hartzea nahiko handia da. Galdetutakoen % 50ek modu jarraituan edo puntualean parte hartzen du topaguneetan edo ludoteketan.

Udal zerbitzuen balorazioa:

- Laguntza falta handienak daude zineman, antzerkian, kontzertuetan, herriko jaietan, liburutegian eta gizarte zerbitzuen jardueretan.
- Kiroldegiaren erabilera librean eta antolatutako kirol jardueretan badaude laguntzak, baina ez dira nahikoak.
- Laguntza gehien ematen dituen Musika Eskola da.
- Topaguneen eta ludoteken kasuan, bakarrik galdetutakoen % 38,5 dago pozik ematen dituzten laguntzekin (20. grafikoa). Gainerakoek uste dute badaudela laguntzak baina ez direla nahikoak, edo ez dagoela laguntzarik.
- Bestalde, udalekuei dagokienez, galdetutako gehienek esan zuten badaudela laguntzak (10etik 8k), baina askok uste dute ez direla nahikoak (10etik 7ik).
- Galdetutakoek udaleko askotariko zerbitzu eta jardueretan desgaitasunik ez dutenekin izan zuten harremana gehientzat "ona" izan zela esan zuten. "Txarra" % 4 eta % 21 artean, zerbitzuaren arabera.
- Orokorrean, zerbitzu guztietan gehiago parte hartzeko nahia dago. Ez egiteko arrazoi nagusia laguntza falta da. Kirol jardueretan are gehiago nabarmentzen da.
- Zerbitzuetan gehiago parte ez hartzeko bigarren arrazoi nagusia irisgarritasun fisikoa falta dela da. Nagusiki herriko jaiak eta kiroldegiaren erabilera librean.
- Galdetutakoen erdiak sentimendu ezkorrak ditu, besteak beste diskriminazioa, ikusezintasuna, arraroa sentitzea eta abar, udal zerbitzuetan parte hartzen dutenean.

Aniztasun funtzionala dutenek udal parte-hartzeari buruz dituzten pertzepzioak.

Kirol eskaintza:

- Irisgarritasuna hobetzeko lan egin den arren, oraindik ere instalazioetara guztiz sartzea galarazten duten oztopoak daude, besteak beste kantxetara sartzeko, edo aldagela inklusiboak falta dira.
- Gainera, irisgarritasun neurriak laguntza-gailuei lotuta daude, hala nola plataformak edo igogailuak, eta horrenbestez, horiek matxuratzen badira, ezinezkoa da mugikortasun urria dutenak sartzeko.
- Eskolako igeriketan eta egokitutako igeriketan ez ezik, ez dago kirol jarduerarako laguntzarik.
- Estrategia orokorra, baliabide ekonomikoak eta inklusioa jorratzeko prestakuntza falta dira. Ez dago jarduketa proaktiborik, baizik eta eskaera zehatzei erantzuten zaie.
- Laguntzak egon edo ez, eta irisgarritasun zailtasunak albo batera utzita, familiek diote inklusiorako benetako oztopoa direla espazioen erabilera araudiak sortutako arazoak.
- Familiek uste dute baita ere udalerriko kirol egokituko eskaintza ez dela nahikoa, bakarrik igeriketa baitago, eta laguntzadun beste kirol batzuk eskaintzeko aukera gehiago egotea beharrezkotzat jotzen dute.

Kultura eskaintza:

- Torrezabal da tokiko erreferentziatzeko kultura espazio nagusia, eta bere egoera kezkagarria da, bai irisgarritasunari eta mugikortasun urria dutenen erosotasunari dagokienez, bai eta larrialdi ebakuazio hipotetikoaren kasuan, segurtasunari dagokionez ere. Aurrerapausoak eman diren arren, espazioa ez da osorik eta profesionalki aztertu erabiltzaileen esperientzia eta segurtasuna hobetzeko. Aurrekoa erabiltzaileen parte-hartzearekin egin behar da baita ere.
- Filmetan azpigitulu gutxi jartzen dituztela edo bestelako jardueretan zeinu hizkuntza laguntzarik ematen ez dutela aipatu zuten baita ere.

Liburutegia:

- Liburutegian seinaleak eta errotuluak falta dira (ez dago piktogramarik), eta langileei prestakuntza falta zaie desgaitasuna dutenekin harremanak izateko.

Gizarte Zerbitzuak:

- Langileek esan zuten zenbaitetan komunikazio zailtasunak izaten dituztela entzumen desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala dutenekin, laguntza eta prestakuntza faltarengatik. Horrek oinarrizko zerbitzuei eta askotariko programetako jardueri eragiten die.
- Familiek diote Gizarte Zerbitzuek informazio gutxi ematen dietela desgaitasuna dutenei eta beren familiei laguntzeko laguntzei, baliabideei, zerbitzuei eta abarri buruz.

Herriko jaiak:

- Berriki aurrerapauso txikiak egin diren arren, kultura jardueretan aipatutako arazo asko errepikatu egiten dira jaietan (irisgarritasun zailtasunak eta larrialdietako ebakuazioak, jarduerak egokitzea, etab).
- Desgaitasuna dutenek jaietako jardueretan eta horien antolamenduan duten parte-hartzea oso urria da oraindik ere.
- Lanean jarraitzeko adibide gisa aipatu zuten jaietan generoa txertatzeko egiten den lanaren antzekoa egitea.

Haurren, nerabeen eta gazteen zerbitzuak:

- Galdakaon ludoteka eta topaguneen sare handia dago. Mugikortasun urria dutenentzako irisgarritasuna bermatuta dago gehienetan, baina ez guztietan. Alderdi hori hobetzea da inklusiorako lehenengo pausoa.
- Inklusiorako oztopo nagusia laguntzarako baliabide falta eta langileen prestakuntza falta da. Kontuan hartu behar da espazio horietan hezkuntza esku-hartzean lan egiten dutenak gutxiegi direla zerbitzura jotzen duten eta desgaitasuna duten guztiei arreta egokia emateko. Egungo langileekin pertsona horiei arreta ematean, gainerako zerbitzua langilerik gabe geratuko litzateke. Gainera, ez dago prestakuntza espezifikorik ezta nahikoa ezagutzarik jakiteko nolako arreta behar duen erabiltzaile bakoitzak.
- Udalekuetan egiten da adingabearen beharren aurretiazko ebaluazioa, zerbitzu horretatik erantzun ona ematearren. Baina inklusioa bermatzeko lan handia dagoela egiteke aitortzen da. Adibidez, gaur egun ez zaie plazarik bermatzen, ezta ere profesionaltasuna edo beharrezkoa denean, laguntzaile berbera egongo dela.
- Askotan familiek esaten dute beldur direla, beren seme-alabek beharrezko arreta profesionala jasoko ez dutela uste baitute. Familientzat garrantzitsua da seme-alabek jardueretan parte hartzea, baina baita ere jakitea langileek prestakuntza eta esperientzia egokiak dituztela desgaitasuna dutenekin lan egiteko. Lasaitasun hori behar dute. Alderantziz, maiz ez dituzte seme-alabak jardueretara eramaten. Arreta egokia ematen ez jakiteagatik baztertuak egon daitezkeela pentsatzeak asko sufriarazten ditu.
- Orokorrean, uste dute sektoreko langileak eta erakundeak sentsibilizatuta eta inplikaturik daudela, eta familiek asko eskertzen dute hori, baina ez da nahikoa.

Musika Eskola:

- Musika Eskolaren esperientziak mugak dituen arren, inklusiorako praktika ontzat jo daiteke. Mugetako bat eskolako hainbat espazioetara joateko irisgarritasuna da, eta hobetu egin behar da.
- Azpimarratzen den beste elementu positibo bat desgaitasuna ez dutenekin egiten den lana da, eta hori funtsezkoa da inklusio osoa lortzeko. Desgaitasunik ez dutenak desgaitasunarekin harremanetan jartzea da.

- Familien balorazioa oso positiboa den arren, faltan botatzen dute herrian ezagutaraztea eta praktika on hori hedatzea eta desgaitasuna duten ikasleek kultura programazioan gehiago parte hartzea.

Udalaren estrategia orokorra eta Galdakaoko inklusioarekiko iritziak

- Galdakaoko Udalarentzat kezkarria izan beharko litzateke udal zerbitzuetan parte hartzeko eskubideak neurri berean bermaturik ez egoteagatik aniztasun funtzionala duten eta desgaitasunik ez dutene herritarrentzat.
- Ez dago estrategiarik ezta plangintzarik ere, eta beraz, laguntza eta egokitzapenak ez dira nahikoak.
- Udalak desgaitasuna dutenekin eta beren ingurukoekin lan egin behar du errealitate horri erantzun koordinatu eta eraginkorra emateko.
- Zerbitzuen, jardueren eta programen izaera inklusiboan emandako aurrerapausuak modu eraginkorren jakinarazi behar dira desgaitasuna dutenek eta beren ingurukoek parte hartu dezaten, lasaitasunez, jakinik zerbitzu horiek prestatuta daudela pertsona horiei arreta profesionala eta abegikorra emateko. Horrekin lotuta, familiekiko komunikazio zuzena indartu behar da.
- Udaleko langileak gehiago prestatu behar dira hainbat mailatan, eta bakoitzaren zereginei egokitutakoa izan behar da prestakuntza hori.
- Inklusioaren arloan ez dago erreferente profesionalik arloei laguntzen dienik zerbitzu, jarduera eta programa inklusiboak ugaltzeko.
- Proaktibitatean aurrera egin behar da, hau da, ez da eskaeren zain egon behar horiei erantzuna emateko. “Eskatu ahala” ematen den erantzuna ezer ez egitea baino hobea da, baina argi dago ez dela nahikoa.
- Orduan, halabeharrez, inklusiorako baliabide ekonomikoak bideratu behar dira era iraunkorrean.
- Ikuspegi inklusiboa sartu behar da zerbitzuak diseinatzen direnetik.
- Laguntza gehien behar dutenak desgaitasun intelektuala dutenak dira. Holako kasuetan bakoitzaren beharrak zuzen baloratu behar dira, ondoren, laguntza pertsonalizatuak eman ahal izateko.
- Udalaz gaindiko mailan inklusiorako estrategia bat egon ala ez, Galdakaoko Udalak bere gain hartu behar duen erantzukizuna da bere menpeko zerbitzu, jarduera eta programa guztietan herritar guztien parte-hartzea bermatzea, bazterketarik eta diskriminaziorik gabe.
- Laguntzaileak, piktogramak, zeinu hizkuntza, irisgarritasuna edo komunikazioa hobetzea inklusioan aurrera egiteko etorkizuneko plangintzan egon daitezkeen neurriak dira.
- Administrazioak ulertu behar du gai horrek erantzukizun publikoko arreta profesionala behar duela, eta erantzuna ezin dela egon boluntarioen, inplikazioaren edo sentsibilizazioaren menpe.

ERANSKINAK

I. eranskina. Kontzeptuen glosarioa.

- **Irisgarritasuna:** instalazioek eta informazio-zerbitzuek ingurunea, produktuak eta zerbitzuak egokitzeko bete behar dituzten baldintzak eta neurriak, bai eta objektuak eta tresnak ere, desgaitasuna duten pertsonak, baldintza berdinetan, ingurune fisikora, garraiora, informaziora eta komunikazioetara (informazio- eta komunikazio-sistemak eta -teknologiak barne, hiriguneetan zein landa-eremuetan) iristeko aukera izan dezaten. Laguntza teknikoak teknologia egokiarekin emango dira, pertsonaren garaiera, tamaina, pisua eta beharra kontuan hartuta.
- **Irisgarritasun kognitiboa:** Objektuek, espazioek edo testuek pertsona guztiek ulertzea ahalbidetzen duten ezaugarriak. Komunikazioa, seinaleztapena, orientazioa eta eraikinen kokapena hobetzeko irtenbideak barne hartzen ditu. Irisgarritasun kognitiboaren tresna bat, adibidez, irakurketa erraza da.
- **Autonomia:** Pertsonak eguneroko bizitzako jarduerak erabakitzeko eta gauzatzeko duen gaitasuna, bere trebetasunak eta baliabideak erabiliz. Autonomia erraztu daiteke zereginak eta ingurunea egokituz eta beharrezko laguntzak erabiliz.
- **Bizi-kalitatea:** Ongizate pertsonaleko egoera desiratua, faktore pertsonalek eta ingurumenekoen eragiten dieten hainbat dimentsio giltzarriz osatua. Dimentsio horiek berdinak dira pertsona guztientzat, baina banaka alda daitezke ematen zaien garrantzian eta balioan. Hauek dira dimentsioak: ongizate emozionala, pertsonen arteko harremanak, ongizate materiala, garapen pertsonala, ongizate fisikoa, autodeterminazioa, gizarteratzea eta eskubideak.
- **Mendekotasuna:** pertsona baten egoera iraunkorra, bere adinaren, gaixotasunaren edo desgaitasun-egoeraren ondorioz. Autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren faltarekin edo galerarekin lotuta dago. Egoera horretan dauden pertsonak pertsona baten laguntza edo laguntza garrantzitsuak behar dituzte eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko eta autonomia pertsonala mantentzeko.
- **Desgaitasuna:** Behar iraunkorrak dituzten pertsonen eta gizartean erabat parte hartzea mugatzen duten edozein motatako oztopoen arteko harremanaren ondorio den egoera, gainerako pertsonen baldintza berberetan.
- **Desgaitasun fisikoa:** "Giza organismoaren ezaugarrien eta bizi den gizartearen ezaugarrien arteko elkarreaginaren islatzen duen fenomeno konplexua" (OME). Terminoak barne hartzen ditu gorputzaren egitura edo funtzio bati, jardueraren mugei eta horiek dakartzaten partaidetza-murrizketei eragiten dieten zailtasunak.
- **Desgaitasun intelektuala:** garapen intelektualaren nahasmendua, pertsonak bere eguneroko bizitzan funtzionatzeko ikasten dituen trebetasunetan zenbait muga dakarrena eta hainbat egoera eta lekuren aurrean erantzuteko aukera

ematen diona. Ereku kontzeptual, sozial eta praktikoetan egokitze-jokabideak mugatzea du ezaugarri. 18 urte bete baino lehen agertu ohi da.

- **Desgaitasun neurologikoa:** Buruko jarduera garrantzitsuak koordinatzen dituzten garuneko guneei eragiten die, hala nola oroimenari, ikaskuntzari, hizketari eta abarri. Jarduera motore eta sentsoari ere eragiten diete.
- **Nahasmendu mentalaren ondoriozko desgaitasuna:** Alterazio emozionala, kognitiboa eta/edo portaerazkoa da, eta oinarriko prozesu psikologikoak eragiten ditu, hala nola emozioa, motibazioa, kognizioa, kontzientzia, jokabidea, pertzepzioa, sentzazioa, ikaskuntza, hizkuntza, etab.
- **Desgaitasun sentsoaria:** egitura sentsoari eragiten die. Izan daiteke:
 - Entzumena
 - Bisuala
 - Gor-itsutasuna
 - Beste zentzumenei eragiten dieten beste batzuk: ukimena, dastamena eta usaimena edo nerbio-sistema.
- **Aniztasun funtzionala:** desgaitasunaren ordezkoterminoa da, eta horren eraginpean dauden pertsona batzuen ekimenez erabiltzen hasi da. Beste batzuk ordezkatu nahi ditu, horien semantika gutxiesgarria delakoan, hala nola "desgaitasuna" edo "minusbalotasuna", eta pertsona guztiak askotarikotzat hartzen ditu.
- **Elkarrizketa sakona:** Elkarrizketa pertsonal luzea da, egituratu gabea, eta elkarrizketatuak aztergai den gaiari buruzko iritziak, jarrerak edo lehentasunak libreki adieraztea du helburu.
- **Foko-taldea edo focus group:** Gai jakin bati buruzko eztabaida gidatu batean parte hartzeko hautatutako pertsonen talde askotarikoa, ikerketa baterako eztabaida irekietan laguntzen du. Biztanleria orokorraren ordezkari bati zuzenduta dago. Moderatzaile bat barne hartzen du eta ikerketa kualitatiboan erabiltzen da. 6-10 pertsonako talde bat sortzen da, gai bat aztertzeko eta eztabaidatzeko, eta gai horri buruzko iruzkinak, iritziak, ezagutzak eta ikuspuntuak partekatzen dira.
- **Talde trianguluarra edo hiruko taldea:** Fernando Conde soziologoak diseinatutako ikerketa kualitatiboko teknika. Talde pertsonalizatua ere deitzen zaio, eta elkarrizketa pertsonalen eta eztabaida-taldearen arteko bitarteko teknika gisa planteatzen da bertan. Hiru parte-hartzaile eta esku-hartze txikia duen moderatzaile bat ditu.
- **Inklusioa:** Gizabanako bakoitzaren trebetasunak eta ahalmenak aitortzen eta baloratzen dituen ikuspegi soziala, pertsona guztiak gizartearen parte aktibo izatea bilatuz, baldintza berdinetan. Gizartearen aberasteko aukera bat da, familia-, hezkuntza-, lan- eta gizarte-bizitzan aktiboki parte hartuz. Desgaitasunaren eremuan, gizartratzeak berekin dakar laguntza egokiak ematea desgaitasuna duten pertsonen beren komunitateetan bete-betean parte hartu ahal izan dezaten.

- **Irakurketa erraza:** Testuak idazteko, diseinatzeko eta maketatzeko sistema, irakurmena ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak informazioa eskuragarri izan dezaten.
- **Laguntza-premia:** eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza pertsonala edo teknikoa (hala nola argia piztea, pertsianak igo eta jaitea, ordenagailuan idaztea, lekualdaketak, hitz egitea, sozializatzea, jardueretan parte hartzea, etab.).
- **Pertsona laguntzailea:** mendekotasun- edo desgaitasun-egoeratik bere kabuz egin ezin dituen edo egitea zaila zaion pertsona batek behar dituen zereginak egiten edo egiten laguntzen duen profesionala. Horrela, bizimodu independentea izan dezake (eguneroko bizitzako zereginak, etxe barruko eta kanpoko laguntza eta euskarria, bizi-proiektuaren parte diren jardueretan laguntzea, sozializazioa, etab.).
- **Desgaitasun aniztasuna:** pertsona batek ezintasun edo muga ugari dituenean. Adierazpen anitzeko desgaitasun larria da, eta bi desgaitasun intelektual edo gehiago, desgaitasun sentzoriala edo osasun hauskorra (larria edo sakona izan daitekeena) elkartzen dira bertan. Pertzepzioaren, emozioen adierazpenaren eta/edo harremanaren alderdiak eta aukerak murrizten ditu.
- **Autismoaren espektroaren nahasmendua edo TEA:** nerbio-sistemaren konfigurazioari eta garunaren funtzionamenduari eragiten dion jatorri neurobiologikoko egoera.

Pertsonari bizitzan zehar laguntzen dio eta, batez ere, funtzionamendu pertsonalaren bi arlori eragiten die: komunikazioa eta interakzio soziala, portaeraren eta pentsamenduaren malgutasuna.

- **Mendekotasunaren balorazioa:** Desgaitasuna duen pertsonak autonomia izateko laguntzak izateko eskubidea aitortzen duen izapidea. Estatu mailan onartuta dago eskubide hori, baina autonomien bidez aplikatzen da.
- **Desgaitasunaren balorazioa:** portzentaje moduan neurtzen da. Desgaitasuna duen pertsona gisa onartua izateko, beharrezkoa da desgaitasuna % 33koa edo handiagoa izatea.

II. eranskina Galdetutakoen ezaugarriak.

5. taula Generoa.

	Absolutuak	Ehunekoak
Emakumea	28	38,4
Gizona	45	61,6
Guztira	73	100,0

Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

6. taula Adina

	Absolutuak	Ehunekoak
12 urte edo gutxiago	17	23,3
13 eta 17 urte bitartean	7	9,6
18 eta 45 urte bitartean	33	45,2
46 eta 65 urte bitartean	16	21,9
Guztira	73	100,0

Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

7. taula Bizileku eremua.

	Absolutuak	Ehunekoak
Aperribai-Olabarrieta-Txistulanda	9	12,3
Urreta-Urtebieta-Zuhatzaurre-Tximelarre goikoa	15	20,5
Usansolo	11	15,1
Zabalgane-Zabalea	6	8,2
Zugutzu-Upomendi-Arkotxa	3	4,1
Bengoetxe-La Troka	2	2,7
Elexalde-Usargoiti	4	5,5
Kurtzea	16	21,9
BITSI	3	4,1
Ed/Ee	4	5,5
Guztira	73	100,0

Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

8. taula Euskara maila.

	Absolutuak	Ehunekoak
Altua (ulertu eta hitz egin)	16	21,9
Ertaina (ulertu bai, baina hitz egin ez)	20	27,4
Baxua (zerbait ulertu bai, baina hitz egin ez)	20	27,4
Ez dakit euskara	16	21,9

Ed/Ee	1	1,4
Guztira	73	100,0

Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

9. taula Ohiko jarduera.

	Absolutuak	Ehuneakoak
Ikasten	30	41,1
Lanean	12	16,4
Lan bila	3	4,1
Eguneko zentroa	10	13,7
Horietako bat ere ez	12	16,4
Ikasten eta eguneko zentroa	1	1,4
Ikasten eta lan bila	2	2,7
Ikasten eta lanean	2	2,7
Lanerako ikastegia	1	1,4
Guztira	73	100,0

Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

10. taula Amaitutako ikasketen maila.

	<16 urte (absolutuak)	16 - 65 urte (absolutuak)	16 - 65 urte (%)	Ed/Ee	Guztira
Ikasketarik gabe	7	11	22,9	1	19
Lehenengo mailako ikasketak	9	16	33,3	0	25
Bigarren mailako ikasketak	0	10	20,8	1	11
Goi-mailako ikasketak	0	10	20,8	2	12
Ed/Ee	5	1	2,1	0	6
Guztira	21	48	100,0	4	73

Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

11. taula Inkesta nola bete den.

	Absolutuak	Ehuneakoak
Online	26	35,6
Paperean	47	64,4
Guztira	73	100,0

Iturria: Geuk egina, inkesta oinarri hartuta.

III. eranskina. Galdetegia. ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEN PARTE-HARTZEA



DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI
BURUZKO IKERKETA
Galdetegia



ANIZTASUN FUNTZIONALA (DESGAITASUNA) DUTEN PERTSONEI BURUZKO AZTERLANA

Galdakako Udalak ezagutu nahi ditu parte hartzeko zer oztopo edo premiak dituzten desgaitasuna duten pertsonak, Udalak antolatzen dituen jardueretan parte hartzeko. Horregatik, hurrengo galdetegia betetzera animatzen zaitugu.

Galdetegia **anonimoa** da (ez da egiten duenaren izena jarri behar).

NORI ZUZENTZEN ZAIO AZTERLAN HAU?

Ondorengo baldintza, hauetatik gutxienez bat, betetzen duten 6 eta 65 urte arteko pertsonen:

- Aisialdi jardueretan parte hartzeko laguntza edo sostenguren bat behar dutenei (laguntzen dien norbait, espazioen egokitzapena, zeinu-hizkuntzako interpretea...).
- Aitortutako desgaitasunen bat dutenei.

NORK BETE DEZAKE GALDETEGIA?

- Desgaitasuna edo sostengu premia duen pertsonak **18 urte baino gehiago baditu**: berak, laguntzarik gabe edo beste pertsona baten laguntzarekin. Beharrezkoa bada, bere egoera ezagutzen duen beste pertsona batek erantzun dezake.
- Desgaitasuna edo sostengu premia duen pertsona **18 urtetik beherakoa bada**: tutore batek (aita, ama edo legezko tutorea).

NOLA BETE DAITEKE GALDETEGIA?

- **Internet bidez**: erabaki.galdakao.eus web orrian
- **Telefonoz**: 688754749 (10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era) Pertsona batek lagunduko dizu eta zure erantzunak jasoko ditu.
- **Aurrez aurre**: galdetegiak paperean eta gutun azalak egongo dira hautestontzietan sartzeko, honako leku hauetan:
 - Aperribaiko liburutegia
 - Usansoloko Liburutegia
 - Musika Eskola
 - Udaletxea
 - Torrezabal

**DATUAK**

“X” batekin erantzun ezazu eskuineko laukietan.

1. Zein da zure genero identitatea?

1	Emakumea	
2	Gizona	
3	Ez binarioa (ez naiz ez gizontzat ez emakumetzat sailkatzen)	

2. Zenbat urte dituzu? _____**3. Galdakao ko zein auzotan bizi zara? _____****4. Zertan ari zara une honetan?**

Erantzun bat baino gehiago aukeratu ahal dituzu

1	Ikasten ari naiz	
2	Lanean ari naiz	
3	Lana bilatzen ari naiz	
4	Eguneko zentroa	
5	Aurreko bat ere ez	

5. Zer ikasketa bukatu dituzu?

1	Ez dut ikasketarik	
2	Lehen Hezkuntza	
3	Bigarren Hezkuntza	
4	Oinarrizko Lanbide-Heziketa	
5	Erdi-mailako Lanbide-Heziketa	
6	Batxilergoa	
7	Goi-mailako Lanbide-Heziketa	
8	Unibertsitateko prestakuntza	
9	Masterra, graduondoa edo goi-mailakoak	

6. Zer euskara maila duzu?

1	Altua (ondo ulertu eta erraz hitz egiten dut)	
2	Tartekoa (ulertu bai, baina zailtasunez hitz egiten dut)	
3	Baxua (apur bat ulertzen dut, baina hitz egin ez)	
4	Ez dakit	



DESGAITASUNA ETA SOSTENGUAK

“X” batekin erantzun ezazu eskuineko laukietan.

7. Eguneroko bizitzako ekintzaren batean sostenguak edo egokitzapenak behar dituzu?

1	Beti	
2	Batzuetan	
3	Inoiz	

8. Zer desgaitasun edo parte hartzeko oztopo duzu?

Aukera bat baino gehiago adieraz dezakezu.

1	Fisikoa	
2	Ikusmenekoa	
3	Entzumenezkoa	
4	Adimenezkoa edo garapenezkoa	
5	Psikikoa / Mentala	
6	Gaur egun ez dakit	

9. Desgaitasunaren balorazioa duzu?

Baietz erantzuten baduzu, idatzi ehunekoa (%).

			Ehunekoa
1	Bai		
2	Ez		

KOMUNITATEAN ETA UDAL ZERBITZUETAN PARTE-HARTZEA

“X” batekin erantzun ezazu eskuineko laukietan.

10. Desgaitasuna duten pertsoneri laguntzen dien erakunderen batean parte hartzen duzu edo kide zara?

Bai erantzuten baduzu, idatzi izena eskuinean.

			Zein elkarte?
1	Bai		
2	Ez		
3	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi		



11. Aisialdiko jardueretan parte hartzen duzu (aisialdiko taldeak, lagun-taldea, kirol-kluba...) desgaitasunik EZ duten pertsonekin?

1	Bai	
2	Ez, desgaitasuna duten pertsonekin bakarrik	
3	Ez, ez dut aisialdiko jardueretan parte hartzen	
4	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	

12. GALDAKAKO UDALAREN JARDUERA EDO ZERBITZU hauetakoren bat ezagutzen duzu edo bertan parte hartzen duzu?

	Ez dut ezagutzen	Ezagutzen dut, baina ez dut parte hartzen	Noizean behin parte hartu dut	Normalean parte hartzen dut	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
Udal liburutegiak					
Zinema					
Antzerkia, kontzertuak...					
Udalekuak					
Topaguneak / Ludotekak					
Musika eskola					
Kirol jarduerak (ikastaroak, lehiaketak...)					
Kiroldegiaren erabilera librea (igerilekua, frontoia, jokalekuak...)					
Herriko festak					
Gizarte Ekintzako jarduerak (adinekoentzako ekintzak, EISEren ekintzak...)					
Beste jarduerak. Idatzi behean zein.					



13. Zer sostengu behar izan duzu edo behar duzu GALDAKAOKO UDALAK antolatutako jardueretan parte hartzeko?

Aukera bat baino gehiago adieraz dezakezu.

Ez dut sostengurik behar	
Arkitektura-oztopoak gainditzeko sostenguak	
Sostengu teknikoak ikusmen gutxidunentzako, itsuentzako...	
Zeinu hizkuntzako interpretazioa	
Jardueretan lagunduko didaten pertsonak	
Beste jarduerak. Idatzi behean zein.	
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	

14. Sostengu hori aldizkako premia izan da edo iraunkorra da?

1	Aldizkakoak	
2	Iraunkorra	
3	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	

15. Nork eman dizu laguntza hori?

1	Zerbitzu edo jarduerak berak	
2	Nire elkarteak	
3	Laguntzaile pertsonal bate	
4	Familiako batek	
5	Beste batek. Idatzi behean zein:	

16. Hurrengo zerbitzuetan gehiago parte hartzea gustatuko litzaizuke?

	Bai, baina arkitektura-oztopoak daude	Bai, baina ez daude sostengu nahikoak	Bai, baina ez naute ondo tratatu	Bai, baina beste arrazoi batzuegatik ez dut egiten	Ez dut parte hartu nahi	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
Udal liburutegiak						
Zinema						
Antzerkia, kontzertuak...						
Udalekuak						
Topaguneak / Ludotekak						
Musika eskola						



Kirol jarduerak (ikastaroak, lehiaketak...)						
Kiroldegiaren erabilera librea (igerilekua, frontoia, jokalekuak...)						
Herriko festak						
Gizarte Ekintzako jarduerak (adinekoentzako ekintzak, EISERen ekintzak...)						
Beste jarduerak. Idatzi behean zein.						

UDAL ZERBITZUEN BALORAZIOA

“X” batekin erantzun ezazu eskuineko laukietan.

17. Zure ustez, nolakoak dira hurrengo zerbitzuek ematen dizkizuten sostenguak?

	Ez dago sostengurik	Sostenguak daude, baina ez dira nahikoak	Sostenguak daude eta egokiak dira	Ez dut sostengurik behar / Ez dut parte hartzen	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
Udal liburutegiak					
Zinema					
Antzerkia, kontzertuak...					
Udalekuak					
Topaguneak / Ludotekak					
Musika eskola					
Kirol jarduerak (ikastaroak, lehiaketak...)					
Kiroldegiaren erabilera librea (igerilekua, frontoia, jokalekuak...)					
Herriko festak					
Gizarte Ekintzako jarduerak (adinekoentzako ekintzak, EISERen ekintzak...)					
Beste jarduerak. Idatzi behean zein.					



18. Nola sentitu zara jarduera horietan parte hartu duzunean?
(baztertuta, ikusezina, zoriontsu, protagonista sentitu naiz...)
 Idatzi erantzuna.

19. Nola izan da zure harremana desgaitasun ez duten pertsonekin hurrengo zerbitzuetan?

	Txarra	Ona	Ez dut parte hartzen / Ez dut harremanik haiekin	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
Udal liburutegiak				
Zinema				
Antzerkia, kontzertuak...				
Udalekuak				
Topaguneak / Ludotekak				
Musika eskola				
Kirol jarduerak (ikastaroak, lehiaketak...)				
Kiroldegiaren erabilera librea (igerilekua, frontoia, jokalekuak...)				
Herriko festak				
Gizarte Ekintzako jarduerak (adinekoentzako ekintzak, EISeren ekintzak...)				
Beste jarduerak. Idatzi behean zein.				

**AMAIERA**

“X” batekin erantzun ezazu eskuineko laukietan.

20. Zer iruditu zaizu galdetegia?

1	Oso erraza	
2	Nahiko erraza	
3	Zail xamarra	
4	Oso zaila	

21. Nork bete du galdetegia?

1	Desgaitasuna duen pertsonak	
2	Desgaitasuna duen pertsonak, beste pertsona baten laguntzarekin (aldizkako edo iraunkorra).	
3	Beste pertsona batek desgaitasuna duen pertsonaren izenean.	

22. Beste zerbait esan nahi baduzu, hemen egin dezakezu:

Mila esker

INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Galdetegi hau Galdakako **dibertsitate funtzionala duten pertsonen udal-partaidetzari buruzko azterlanaren** parte da.

Azterlan honi buruzko informazioa izaten jarraitu eta hurrengo faseetan lagundu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:

- Email bidez: partaidetza@galdakao.eus
- Telefonoz: 688754749